

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Abenduak 20, 131. zenbakia

Udalaren laguntzarekin et...



OLENZERO
"Umeen Gabonetako
ilusioa"



Ilusio-egunak

Santamasak eta Gabonak

Roberto Mendi



**LORAMENDI
KIROLAK**

Maiatzaren 1a plaza
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 24





Jabier

B

ehor heavy samarra eraman zuten Zumarragako Santa Lutzia feriara, leinuko harro eta dotoreena seguruen. Berea mendia edo baserria izanik, Orbegozok kezkatutako kale zikinetan jarri zuten erakusgai. Izan ere, abere ikusgarria da. Mantsoa diru-

dien arren eta soka sendo batez burdinazko katera lotu badute ere, berebiziko indarra nabaritzen zaio. Burumakur dago, beharbada momentuko egoeraz konturatuta, baina propioz dagokion duintasuna ezkutatu ezinik. Zer gertatuko litzateke lepoa

jaso eta lau hanka gogor horiekin inguruak astinduko balitu? Soka sendoa ziztrin bihurtuko litzateke eta inguruko guztiek, ihesari ekin beharko liokete. Santamasetan ere, begien gozamenerako izango da halakorik Arrasaten.

Zubizaneta



GALERIA

44



ZORIONAK ETA OPARI BEREZIAK



Adiskidetasuna eskertuz, Urte Berri atsegina

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaita Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Maria Agirre, Jon Etxebarria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Santamasak gurean

Konturatu orduko Gabonak ditugu gainean. Eta jai horien atarian, egutegiari zintzo jarraikiz, gure santamasak. Herriko jai nagusiak Ekainean ospatzen ditugun arren, ziurrenik jairik herrikoienak oraingoak dira, arrasatearren partaide-tzari bagagozkio, behintzat.

Santamasak esaten diogu egun bakar bateko jaiari. Zioa, hainbatetan lez, iraganean bilatu behar dugu, izan ere antzina bi eta hiru egunetako feria (21, 22 eta 23) eratzen bait zen Arrasaten. Gaur egun ere, baserriar kutsua eskaini nahi zaio ospakizunari eta zeharo hiritartu zaigun gizarte honek atzerantz begiratzen du, une eskas batzuetan, berriro gozatu ahal izango ez duen bizimodu hartaz berjabetzeko asmoz, nonbait.

Iraganak eskaini ezin dezakeen itxaropena etorkizunean dugulako segurantzatik, bidezkoa deritzot, txolartetan, oroitzapenen ispiluan begiratzeari, gure izaneko zuhaitzaren sustraiak zeintzuk eta nolakoak diren egiaztatzeak, dagokigun gerizpea noraino iristen den mugatzen bait digu. Berrogei urteko marratik berriz igaroko ez garenok garbi gogoratzen ditugu azoka egun haiek, Ferixalekuan. Urte osoan zehar, hileko bi ostiraletan inguruko baserriarrek Arrasatera biltzen zirelarik, Abenduko 22a zuten azokarik entzutetsuena. Huraxe zen espektakulua!

Goizean goiz agertzen ziren lehen-dabiziko behi zein idi taldeak, Zarugalde edo Legarretik barrena: Abenduko izotzak eta kaleetako adokinatuak ez

zuten animalien ibilaldia errazten, maiz irristada galantak sufritzen zituztelarik. Geroago iristen ziren zerri eta zaldiak, bidaia kamionetan bait zegiten. Ordu-rako, udal-lagileen kontramaisu zen Juan Bautista gizontzarrak Abastoseko Azokaren atea irekita zeukan, pixkanaka pixkanaka baserriarrek euren produktuekin ailegatzen ari bait ziren. Astoak Zerkaosteta, Iturriotz kalean edo Zaldibarko estratan aparkatzen zituzten.

Portaloian eta Ferixaleko bidean, aldiz, txarlatanak ipintzen ziren, bizarrak egiteko labana, billetegi, erreuma sendatzeko hauts majiko, egutegi zaragozano eta abar irudikaitz bat "ni a 7, ni a 6, ni a 5" sistemaz saltzeko ahaleginetan. Ez zen faltatzen bertsopaperik eskaintzen zuen aguretxoa ere. Arratsaldeko lehen orduan Txoko, Lagunilla, bueno... tabernak baserriarrez gainezka zeuden, bapo jaten eta edaten ari ziren bitartean beren gorabeherak elkarri kontatzen zizkiotela. Biharamunean izango ziren ajeak!

Iluntzean, azkenik, Herriko Plaza eta lehentxeago porru, tipula, aza eta kapoiez apaindutako Abastoseko Azokan —Verdurin izenez birmoldaturiko dantzalekuan— pasodoble eta tangoei lotuko zitzaizkien espezialistak, guri umeoi, pareja artean inkordiatzeko irtenbidea geratzen zitzaigularik.

Diotenez, gizonok gara errealtatearen laberintoan galtzen diren animalia bakarrak. Denborak ez dira aldatzen... gizonok gara diferente!

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL


ZORIONAK

FOTO
imagen
ARGAZKI



URTE
BERRI
ON!

Zerkaosteta, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 66 87



ileapaindegia eta edertze-gela

Olarte, 18 etxabea Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



BILATU ZEURE ARBASOAK

- Zuhaitz genealogikoak
- Famili jatorriak
- Abizenen ikerketa
- Harmarriak

Elorza-Egiara genealogiak

(Historian lizentziatuak)

Foruen Plaza, 1-5. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 79 58 80

**ARGI
PLASTIC.
C. B.**
**PVC eta
aluminiozko
leihogintza**
**Berria Arrasaten!
Diseinu berriak!**

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

Olentzerori

Laster gabonak iritsiko dira Euskal Herrira. Ba al dakizue noiz datorren Olentzero?

24ean dator Olentzero. Desiatzen nago Olentzero etortzeko opariak ekartzeko. Nik Babi Feberren maletina eskatu dut. Datorren astean oporrrak ematen dizkigute. Gabonetan mazapana, polborioak eta turroia jaten dugu. Gauean oso ondo afaltzen dut. Toron igaroko ditut gabon osoak abestiak abesten. Gabon zahar gaua da onena niretzat.

BEATRIZ ALONSO, 8 URTE,
ERGUINEKO ESKOLA PUBLIKOA.

Kaixo Olentzero

Iban naiz eta urte honetan oso ondo portatu naiz. 10 urte ditut eta bostgarren mailan nago. Urte honetan nahi ditudan opariak hauek dira: Ranagol jokia, ordenadorea, impresora, baloia, ohea, ordenadorearentzako mahaia, kortinak eta liburuak. Ranagol jokia oso polita da, eta gainera golak sartu behar dituzu, tragabolak bezala da, baina ez duzu jan behar, baizik eta golak sartu zure lagunari pasatuz. Nik nahi ez dudana ikatza da. Olentzero maitea, niri opariak ekartzen badizkidazu beti idatziko dizut.

IBAN RODRIGUEZ, 10 URTE,
MUSAKOLAKO ESKOLA PUBLIKOA.

Kaixo Olentzero


Zer moduz zabiltza mendian? Ni oso ondo nabil. Nire lagunak esaten dutenez, Olentzero aita eta ama izaten dira, baina ez da egia. Orain opariak eskatuko dizkizut, baina gero jarraituko dut gauzak kontatzen. Beno, hau da nik nahi dudana: Mundua argiarekin nahi dut eta barbintzako arropak. Nire izebaren etxean motxila handi bat uztea nahi dut eta Oñatin aterkin polit eta handi bat. Beno, orain gauzak kontatzen jarraituko dut. Ni ez naiz egongo ohean, kalean baizik. Eta Oñatira ere joango gara. Nire amak esan didanez, ikasi dudan Gabonetako kanta Oñatin txirulaz jo behar dut. Orain agurtu egin behar naiz. Besarkada handi bat eta agur.

AINHOA, 7 URTE,
SAN VIATOR IKASTOLA.

Kaixo Olentzero!

Zortzi urteko neskatila naiz, Saioa da nire izena. Laster Gabonak izango dira eta oso pozik nago, baina badakizu? Kalean ikusten dudan jendea ez da zorientzua. Aizu Olentzero! Zergatik ez duzu kalean ZORIONA banatzen niri opariak ekartzen dizkidazunean? Agur Olentzero maitea eta ez ahaztu eskatu dizudan guztia!
Musu bat eta ZORIONAK.

SAIOA SANCHEZ, 8 URTE,
LA MERCED IKASTETXEA.



ZABALETA LIBURUDENDA

Aldizkariak, liburuak...

Zarugalde kalea, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 65 53


ESCRITURA: MONT BLANC SHEAFFER PARKER WATERMAN PELIKAN
 WECLE TOMBO SAILOR LAMY DANIEL
 ESCOLAR: TRAFIC CLAIRFONTAINE BOLIGRAFOS PORTAMINAS REGLAS TIJERAS
 PEGAMENTOS PINTURAS ROTULADORES STABILO JOBI OXCRON
 PENTE: PILOT UNIBALL MATERIAL DE OFICINA: ARCHIVO LIBROS
 CONTABILIDAD CINTAS ADHESIVAS CORRECTORES ETIQUETAS ARTICULOS
 CLASIFICACION FICHEROS DOSSIERS MIQUEL RUIZ ESSELTE QUERALT

B E R E I Z Z A I T E Z

DIBUJO TECNICO: PARALEX ESTILOGRAFOS COMPASES STAEDLER
 FABER CASTELL ROTRING LASTER COMTE AGENDAS: FABIO FENCCI
 QUO VADIS EXACOMTA REGINA LUXINDEX NAVA DESIGN KENY DEUSTO MYRGA ADDEX PAPEL: REGALO DECORACION ESCRITURA
 DIBUJO TECNICO BELLAS ARTES CHAROL ESCAPARATISMO CAJAS CARTON

ESCRITURA: MONT BLANC SHEAFFER PARKER WATERMAN PELIKAN
 WECLE TOMBO SAILOR LAMY DANIEL HECHTER OMAS MATERIAL
 ESCOLAR: CARPETAS CUADERNOS PARDC UNIPAPEL SARO BCN
 TRAFIC CLAIRFONTAINE BOLIGRAFOS PORTAMINAS REGLAS TIJERAS
 PEGAMENTOS PINTURAS ROTULADORES STABILO JOBI OXCRON
 PENTE: PILOT UNIBALL MATERIAL DE OFICINA: ARCHIVO LIBROS
 CONTABILIDAD CINTAS ADHESIVAS CORRECTORES ETIQUETAS ARTICULOS
 CLASIFICACION FICHEROS DOSSIERS MIQUEL RUIZ ESSELTE QUERALT

J. URLARTE PAPERDENDA



GURE BEREZITASUNAK:


- * Idazketa
- * Bulegorako gaiak
- * Eskolarako gaiak
- * Marrazketa teknikoa
- * Idaztegiko gauzak
- * Oparigaiak
- * Apaingarriak
- * Agendak
- * Larrukiak

MERKATUKO MARKA
ONENEK BERMATU ETA
ABALTZEN GAITUZTE

ZATOZ IKUSTERA!

ESCRITURA: MONT BLANC SHEAFFER PARKER WATERMAN PELIKAN
 WECLE TOMBO SAILOR LAMY DANIEL HECHTER OMAS MATERIAL
 ESCOLAR: CARPETAS CUADERNOS PARDC UNIPAPEL SARO BCN
 TRAFIC CLAIRFONTAINE BOLIGRAFOS PORTAMINAS REGLAS TIJERAS
 PEGAMENTOS PINTURAS ROTULADORES STABILO JOBI OXCRON
 PENTE: PILOT UNIBALL MATERIAL DE OFICINA: ARCHIVO LIBROS
 CONTABILIDAD CINTAS ADHESIVAS CORRECTORES ETIQUETAS ARTICULOS
 CLASIFICACION FICHEROS DOSSIERS MIQUEL RUIZ ESSELTE QUERALT

ARRASATE Ferrerías 32. Tfnoa: 77 03 80



Erdiko kale, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 14 33

OINETAKO DOTOREAK

- Lottusse
- Koll-Flex
- Ferrerias
- Romika

GAZTEENTZAKO OINETAKOAK

- Camper
- Dr. Marten's
- Panama
- Ellos

**BOLTSAK, GERRIKO
ETA OSAGARRIAK**

Zer egingo zenuke loteria tokatuz gero?



Mertxe Salaberri
(Langabetua)

Bidaia luze bat egingo nuke, mundua ikusteko. Arduratu barik, nahi dudan guztia erosiko nuke, kapritxo guztiak; eta munduko haurren alde lan egiten duten taldeei ere lagunduko nieke.



Juan Maortua
(Langilea)

Lehenengo behintzat etxea behar bezala konponduko nuke, eta asko sobratuz gero anaien artean banatu.




Felix Lizarralde
(Jubilatua)

Gastatu egingo nuke, bidaiak eginez eta horrela.



Maria Angeles Tejeiro
(Etxekoandrea)

Ez dakit, ez dut inoiz pentsatu ere egin. Gauza asko egingo nituzke.



UMEEN JANTZIAK

*Urte berri on eta jai zoriontsuak opa dizkizu
ARRIARAN jantzi-dendak.*

*Etxeko umeentzat Olentzerok, opari gisa, jantzi asko ekartzea
espero dugu.*

Moda-denda hau zeure zain duzu.

ONDO PASA!

Otalora, 29 ARRASATE Tfnoak: 77 05 61

Zer eskatu diozu Olentzerori?



Jesus Mari
Bizikleta larua eskatu diot, pasiloan ibiltzeko.



Nekane Fernandez
7 urte
Olentzerori ez diot eskatu ezer, erregeei eskatu diet, argazkiak ateratzeko makina bat.



Nekane (abizena ez daki)
5 urte
Eskuak mugitzen dituen panpina, eta izenarekin ez naiz gogoratzen.



Gorka Fernandez
2 urte
Motorra, motor gorria.



- UME-MODA
- LENTZERIA
- KORTSETERIA

NEREA

Erdiko kale ARRASATE Tfnoa: 79 13 43


Zer eskatu diozu Olentzerori?



Aitor Elortza
2 urte
Tutua (autoa), tutu handia.



Leire Bedia
6 urte
Etxean *Diseño la moda* eta plastilina janariak egiteko. Amamaren etxean, *Gogo* txakurra. Eta Olentzerori esan diot, honetaz gain, nahi duen guztia ekartzeko.




Mikel Gutierrez
Pizzak botatzen dituen dortoka, dortoken etxea eta kamioi berdea.



Julen Diaz
3 urte
Baloia, kamioia eta koxtea.

BIDEO-EMANALDIA

Goonietarrak



Tokia: Monterron kultur etxea

Eguna: abenduak 21, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30ak

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULTANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINITZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal-zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



20

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "La noche de los muertos vivos" (5-7.30-10).
- Umeentzako bideo-emanaldia, Monterronen arratsaldeko 4.30etan.
- AED sarien banaketa, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

21

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Pensamientos mortales" (5-7.30-10)
- Euskal liburu eta disko azokaren lehen eguna.
- Kontzertua: Goikobalu abesbatzarekin, arratsaldeko 5etan, parrokian.



Saskibaloia

- Larunbatean, arratsaldeko 6etatik aurrera Musakolako Kiroldegian, Centraljet Euskal Air - BKL partidua.
- Larunbatean, arratsaldeko 8etatik aurrera, Musakolako Kiroldegian, emakumezkoen Centraljet Euskal Air - Austri partidua.

Eskubaloia

- Larunbatean, arratsaldeko 5.30etan Iturripen, Arrasate Kirolak—Oarso.

- Dantzaldia: Inguma taldearekin gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

22

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Pensamientos mortales" (5-7-9.30)
- Santamas Eguna.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

23

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Pensamientos mortales" (7-9.30)
- Euskal liburu eta disko azoka.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

24

ASTEARTEA

- Euskal liburu eta disko azokaren azken eguna.
- Txoronpio, goizean Arrasateko kaleetan Olentzerentzat gutunak jasotzen.
- Olentzero, arratsaldeko 6etan Maala kaletik abiatuta.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

25

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

26

OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

Herri-Kirolak

- Zaldibar pilotalekuan, larunbatean eguerdiko 12.30etan Arrospide, Mindegia, Larretxea eta Etxebeste aizkolarien saioa; ondoren, harrijasotzaileak Arrasateko bolo-harriarekin.

Futbola

- Igandean, Atxabalpen arratsaldeko 3.45etatik aurrera, Mondra eta Galdakao taldeen arteko txapelketa.

Deialdiak

• Dirulaguntzak

Gazte-Zerbitzuak gazte askorentzat interesgarriak izan daitezkeen garraio-beken berri eman nahi du. Dirulaguntza hauek unibertsitate-mailako ikasleei zuzenduta daude, egunero herritik unibertsitatera joateko 25 kilometro baino gehiago egin behar izaten ditutenentzat. Eskaerak egiteko epea urtarrilaren 21a arte zabalik izango da eta eskaera-inprimakiak ikastetxe desberdinetan nahiz Hezkuntza, Unibertsitate eta lkerketa Sailaren Lurralde-Ordezkaritzetan eskura daitezke.

• Egunkariaren tonbola

Egunkariaren tonbolako boletuetan saridun izan zirenek sari horiek jaso nahi badituzte AED elkartearen asteleheneretik ostiralera eta hilaren 31a baino lehen 6etatik 9etara jaso ditzakete.

Erakusketak

• Euskal liburu eta disko azoka

Santamas eta Gabon jaiak direla eta, 21etik 24era bitartean, euskal liburu eta disko azoka zabalduko da Frantziskotarrek Sebero Altube plazan duten aretoan. Azoka honetan, adin guztietarako liburuak eta diskoak jarriko dituzte salgai eta adinka sailkatuta gainera. Libururik gomendagarrienak zeintzuk diren jakiteko, Eskoriatzako Irakasle Eskolak atera-



Santamas Argazki-Lehiaketa

Argazki onenak 25.000 PTako saria izango du

Sortu zenetik urtero egin den bezala, aurten ere ASA taldearen eta Santamasetako Jai Batzordearen artean, Santamas Argazki-Lehiaketa antolatu da. Gaiak, normala denez, Santamasak, Txoronpio eta Olentzero izango dira.

Argazkiak, zuri-beltzez edo kolorez aurkeztu ahal izango dira, 30x40 cm.ko kartulinan itsasita. Lanen aurkezpenarako azken eguna, urtarrilaren 8a izango da eta lanak lkatz, Epelde, Laso, Imagen eta losu argazki-dendetara eraman beharko dira. Sariak, honako hauek dira: bilduma onenari, 25.000 PTA; argazkirik onenari, 20.000 PTA; bigarren argazki onenari 15.000 PTA eta Olentzero/Txoronpio argazkirik onenari 10.000 PTA.

Lehiaketaren irabazleen berri urtarrilaren 10ean eman go da, arratsaldeko 7etan, Monterron Kultur Etxean. Lehiaketara aurkeztutako argazkiekin Monterronen bertan erakusketa bat prestatuko da.

tako gida bat ere izango da aukeran.

Liburu arruntez aparte, Seaskako Egutegiak, AEDko lehiaketetako liburuak, Jazten soziolinguistikako aldizkaria eta AEDk 92rako aterako duen egutegia ere salgai izango dira. Euskal liburu eta disko azokaren antolatzailea AED izan arren, Arrasateko ikastetxe eta euskaltegietak irakasleak izango dira saltzaileak. Azokaren ordutegia, honako hau izango da: abenduaren 21, 22 eta 23an goizeko 11etatik 2etara eta arratsaldeko 5.30etatik 9etara; eta abenduaren 24ean goizeko 11etatik 2etara eta arratsaldeko

5.30etatik 7.30etara.

• Euskal Herriko Sestogintza

Abenduaren 17tik 31ra, Udalak antolatuta, Monterron Kultur Etxean, *Euskal Herriko Sestogintza* erakusketa izango da.

Astelenetik ostiralera arratsaldeko 6etatik 8etara izango da ikusgai eta larunbat eta jaiegunetan eguerdiz 12etatik 2etara, eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

• Estibaliz Ormaetxearen Erakusketa

Estibaliz Ormaetxea arra-

satearra bere pinturak erakusten ari da, Kutxak Donostiako Arrasate kalean duen aretoan. Erakusketa urtarrilaren 10a arte izango da, eta ordutegia, lanegunetan arratsaldeko 6.30etatik 9ak arte eta jaiegunetan, berriz, 11.30etatik 13.10etara.

Lehiaketak

• Dantza Askatuko Txapelketa

Santamasetako egitarauan lehen aldiz, aurten larunbatean, hilak 21, eguerdiko 12.30etatik aurrera Sebero Altube enparantzan Dantza Askatuko Txapelketa egingo da. Txapelketa honetan, 14 urtetik beherako dantzariak hartuko dute parte. Nobedadea denez, eta gainera normalean ikuskizun polita izaten denez, seguruen arrakastatsua gertatuko da dantza-txapelketa hau. Ea bada eguraldiak laguntzen duen!

• Fruitu, barazki, Hegazti eta eskuz egindako gazten lehiaketa

Urtero bezala, Santamas Batzordeak fruitu, barazki, hegazti eta eskuz egindako gazten lehiaketa antolatu du. Irabazleentzat jarri diren sariak honako hauek: fruitu eta barazkietan 20.000 PTA eta trofeoa, hegazti eta gazta lehiaketan, berriz, 18.000 PTA eta trofeoa. Horietaz gain, irabazle ez direnentzat ere sari ugari jarri dira. Ikusi egin behar zer nolako jeneroa dakarten aurten gure baserriarrek.

• Eskaparate-lehiaketa

Azken urteetan bezala, Santamas egitarauaren barruan eskaparate-lehiaketa antolatu da. Eskaparateak prest badaude ere, epaimahaiaren erabakia falta da. Irabazlea nor den jakiteko, larunbatean epaimahaia kaleetan zehar ibiliko da eskaparateak ikusten.

“ “ Konstituzioaren urteurrenean, aldiz, asko aipatu da lege nagusi horren aldaketa posiblea.

Garbi ezazu hortik aldaketarik ez datorrela. Senatuaren aldaketa askoz errezagoa zen, baina hori ere ukatu egin dute. Edozein aldaketa planteatzeak aurretik emana dauka ezetza. Hala ere, konstituzio aldaketa proposatu egin behar dugu, zeren eta gauza bat da Madrilen horretarako bidea ixtea eta beste bat da guk egin behar duguna. Autodeterminazio-eskubidearen onarpena nahi baldin badugu, urrats batzuk eman behar dira eta bat konstituzioaren aldaketa eskatzea da, nahiz eta hasieran Madrilen erantzun onik ez jaso. Baina gauzak behin eta berriro errepikatu behar dira, azkenean kontutan hartzea nahi baldin badugu.

(...) EAren Gipuzkoako zati bat EAJra pasatzeko beldurrik ez al duzu?


Ez dut uste halakorik gertatuko denik. Gure boto batzuk behar bada EAJra joan daitezke, baina beste batzuk haietatik gurera etortzeko esperantza dut. Baina militanteak ez. Gure militantegoa oso minduta dago EAJk egin dituen gauzeekin, eta gure arteko harremana ez da batere ona.

(...) Eusko Alkartasunaren Kongresuaren atarian zaudete.

Gure hurrengo kongresuan bi gai nagusi jorratuko ditugu batez ere, bata politikoa eta bestea sozioekonomikoa. Tripartitoaren esperientzia hor dago, hori hautsi zen, bueno, hortik bota egin gintuzten, eta alderdi abertzale eta progresista baten alorra landu behar dugu”.

(Esther Larrañaga. EGUNKARIA:1991-XII-15)

Nola gogoratzen dituzu zeure haurtzaroko Gabonak?



Hasteko, uste dutesan beharra dagoela ni jaiotzez nafarra naizela, Beteluko hain zuzen ere. Betelu oso herri txikia da eta, gogoratzen dudanez,

orduak ez zen aparteko gauzarik izaten Gabon partean: zaldi txikiren bat jartzen zuten eta Erregeak etorriko zirela, etab., baina ez zen gehiago egiten. Garai oso txarrak ziren, jendea pobrea zelako.

Zazpi urterekin Arrasatera etorri nintzen eta hementxe beste gauza bat zen: zaldiak handiagoak ziren, argitasun gehiago zegoen... Olentzero ere kalez kale ibiltzen zen, oraingo moduan Gabon bezperan. Nik gogoratzen dudanez, Olentzero 1940garren urtean desagertu zen eta handik aurrera hasi zen Erregeen Kabalgata antolatzen.

Lehen Gabonak ez ziren orain moduan ospatzen, jendeak ez zuen dirurik eta ez zen oraingo ospakizun ikaragarrikerik izaten. Jateko, azak eta buzkantzak izaten genituen, eta urte onetan turroi apur bat ere bai. Aberatsak, ordea, ospatzen zituzten Gabonak; oraingo antzera. Umetan ez nuen Gabonen etorrera ilusio gehiegirekin itxaroten, orain ilusio handiagoz itxaroten dut, bai neuk baita oraingo umeek ere. Dударik ez dago, oraingo Gabonak lehengoak baino politagoak dira eta gainera hobeto ospatzen dira, Olentzero ere berreskuratu da eta.

ROSALIO ZUBIZARRETA,
ABAROAKO LEHENDAKARIA.

LORATEGI

tabernak

jai martxosoak

opa dizkizue guztioi

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

Beste 20 taldek Euskararen Hitzarmena sinatu

Asteazkenean, hilak 18, Arrasateko beste hogeik elkartek Euskararen Hitzarmena sinatu zuten. Sinadura, Monterron Kultur Etxean egin zen eguerdiko hamabietan; mahaian, M^a Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako idazkaria, Jose M^a Mujika AEDko lehendakaria, Xabier Zubizarreta Arrasateko Alkatea eta Jabier Ozaeta Hitzarmenaren teknikaria izan ziren. Mahaikoek Hitzarmenaren sendotasunari buruz hitz egin zuten, asteazkeneko sinaduren ondorioz 80 sinatzaile direlako delako akordioaren zerrenda. Horretaz gain, Arrasaten euskararen normalizazioaren alde egin den lana toki askotan erduztat hartzen ari dela ere aipatu zuten. Azkenean, taldeen ordezkari guztiak, bananbanan mahaitik pasatu ziren, Hitzarmena sinatuz.



Sari-banaketa Monterronen egin zen

AEDren sari-banaketa

Arrasate 91 Lehiaketaren irabazleak

Aurtengoarekin bostgarren urtea da "Arrasate 91" Lehiaketa eta "Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariaketa" antolatu dena.

Jokin Zaitegi IV Itzulpen Laburren Sariaketa lehen saririk ez da eman eta akzesita Iñaki Azkunerri eman zaio.

Arrasate 91 Ipuin-Lehiaketan gaztetxoetan lau akzesit banatu dira eta irabazlea Miren Oianguren izan da; ertainetan bi akzesit eta irabazlea Leire Diaz de Gereñu; helduetan bi akzesit eta Andoni Urzelairantz lehen saria.

Poesi Lehiaketa gaztetxo eta helduen mailan hutsik gelditu da. Maila

ertainean, berriz, akzesita Naiara Bengoarentzat izan da eta irabazlearen saria hutsik gelditu da.

Bertso-Paperen Lehiaketan Gaztetxo mailan bi akzesit eta irabazlea Ainhoa Agirrezaldegi izan da; ertainetan bi akzesit eta irabazlea Amaia Agiriano; azkenik helduen artean bi akzesit eta Danel Goikoela irabazle.

Argazki lehiaketan bi akzesit, bildumarik onenaren saria hutsik eta argazkirik onenaren saria Jabier Ozaetak irabazi du.

Komikietan, azkenik, akzesit bat eta Iban Astondoarentzat lehen saria.



Pedro Luis

ARGAZKI-DENDA

Estudioa
Materiala
Marko-jartzeak



Uribarri Etorb., 1 ARRASATE Tfnoa: 79 75 15

□ **Kooperatiba-Taldearen Kongresua**

*Ostegunean, hilak 19, Arrasateko Kooperatiba-Taldeak III. kongresua zuen hastekoa. Kongresu hau, kooperatibek inoiz izan duten aldaketa estrukturalik garrantzitsuen planteatzeko zen. Guzti honen helburua, kooperatiba-izpiritua galdu barik, European ahalik eta kondizio onenetan konpetitza da, kooperatiba-taldeak orain artean izan dituen arazoak gaindituz.

□ **Osakidetzaren oharra**

Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabale-tako herrietan, lanegunetan bostetatik aurrera, osasun-asistentzia behar dutenak Arrasateko anbulategiko Larrialdi Zerbitzura joan beharko dute. Bestela, 79 13 57 telefonora deitu behar da, Larrialditako Zentru Koordinatzailearekin kontaktatzeko. Kontakutua egi-tea posible ez balitz, (945) 24 44 44 telefonora dei egin daiteke. Igande eta jaiegunetan, berriz, Arrasateko Larrialdi-Zerbitzura edo lehen aipatutako telefonora jo daiteke eguneko 24 orduetan. Dena dela, zerbitzuak itxita daudenetan, 79 13 57 telefonora ere dei egin daiteke.

ONGIETORRIA JAI OBERRIE

Mora Soriano, *Maialen*. Abenduaren 4ean.
Idoate Ortueta, *Josu*. 11n.
Otxandiano Gallastegi, *Julen*. 13an.
Oleaga Nuño, *Josu*. 15ean.
Gonzalez Narero, *Bryan*. 15ean.

EZKONBERRIEI ZORIONAK

Ignacio Gonzalez & M^a Luisa Hernandez.
Abenduaren 14an. Elizez.

JOAN DIRENEI AGUR

Feliciano Agirre Garai. Abenduaren 10an. 90 urte.
Francisco Ugarte San Vicente. 11n. 69 urte.
Arsenio Hernandez Lerin. 12an. 58 urte.
Jose Duran Otero. 14ean. 81 urte.
Segundo Galan Benitez. 16an. 86 urte.
Carmen Aranda Perez. 17an. 70 urte.

Txandaka


... ETA GURASOAK ZER?

Gabon, Olentzero eta Erregetako panorama honetan, zer pintatzen dugu gurasook?

Hainbat opari eta hainbat iragarki ikusirik, badirudi umeak gabonetan bakarrik existitzen direla. Zer oparitu, zer behar duten edo ez ote dugun diru gehiegi gastatzen, oraintxe galdetzen dugu bereziki.

Haurren beharrak, beren adinaren ezaugarriak eta interesak, beharrezko erizpideak dira oparia aukeratzeko; gure posibilitate ekonomikoak ere beste erizpide bat izan behar du, horrela errealitatearen zentzua transmitituz umeei. Batzuetan gure lana oso gogorra izaten da, telebistaren kontra borrokatu behar bait dugu, eta dena zoragarri, zuzen eta perfektoa izaten da han. Baina borroka hau posible eta beharrezkoa da: haurra sortzaile egiten duena, bere kuriositatea pizten duena, besteekin harremanetan jartzen duena, inguratzen duen mundua ezagutzen laguntzen diona, ikusle pasibo izatearen ohiturak apurtzen dituena... hori bakarrik izango da opari eta jostailu baliogarria.

Halere, Gabona edo Olentzero edo Erregeak ez direla garrantzitsuak esango nuke nik, aurrez eta ondoren gertatzen dena baizik. Gabonetan egiten duguna urtean zehar egindakoaren islada besterik ez da. Edo, agian, egun horietan kezka berezi eta pertsonala azaltzen du-



(*) **Juanjo Otaño**

tenentzat, urtean zehar egindakoak horren islada izan beharko luke. Haurrak bete ezinezko kapritxoak dituela eta tematia dela esateak ez du balio. Urtean zehar bere kapritxo guztiei baietz esaten badiegu, zail samarra da orain nahi duena ukatzea. Urtean zehar zer behar duen ikusteko eta erantzuteko begiak zabalik baldin

baditugu, askoz errazagoa izango da Gabonetan ere bere beharrak kontuan hartzea. Beraz, nire ustez, aurrekoa eta gerokoa da garrantzitsua.

Baina ez dugu geure burua engainatu behar: haurren inguruan dauden jostailuak edo objektuak berez ez dira hezgarriak edo edukatiboak. Objektu horien inguruan sortzen diren harremanak, besteok —lagunok, gurasook, irakasleok— sortzen ditugun harremanak, horiek dira benetan hezgarriak, horiek dira aberatsak. Eta hemen nagusiok garrantzizko papera dugu. Beraz, haurren jostailurik onena nagusia dela esan daiteke, helduaren presentzia eta kolaborazioa behar duelako haurrak; eta hori ez bere jokoak antolatzeko, baizik eta bere lorpenen lekuko izateko, bere jolasetan partaide izateko, beragandik hurbil eta prest egoteko.

(*) **ESKORIATZAKO IRAKASLE
ESKOLAKO IRAKASLEA**

ZORIONAK ETA URTE OPARITSUA!

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Usteak uste

Garibayk gure herriko jaiak albokarekin animatzen zirela idatzi zuenetik gaurdaino, egoera, noski, erabat aldatu den arren, musikak jaietan orduan zuen besteko protagonismoa du, ez bakarrik jaietan, baita eguneroko zereginetan ere. Zaila izango da Arrasateko edozein etxetan musikarekin harreman zuzenik ez duenik topatzea.

Folkloreetik hasi eta klasiko-raino, rocka barne hartuz, Arrasateko musika eskaintza izugarria da. Abenduan egin eta izango diren musika-ekintza ezberdinei begirada bat ematea baino ez dago.

Milioi-mordoa eskatzen du kultur adierazpen honek; irakaskuntza, berez, oso garestia da, tresnak eta jende-multzo ezberdinei eskatzen dien dedikazioa ere bai. Testuinguru honetan hezkuntz antolaketa berriarekin musikaren irakaskuntz eta zabalkundeak sakonko aldaketak jasango ditu eta badirudi musikari aro berri bat irekiko zaiola. Prozesu honetan Administrazioak zeresanik franko izango du ekonomi baliabideak zuhertasunez kultur ekintza guztien artean egoki banatzeko.

Osterantzean megalomaniak ez ote du Euskal Herrian edota Arrasaten gainerako artegintza-aren garapena gerizpean utziko?

JON GARAY



Abenduaren 17an izandako Udal-Plenoa

EAJren mozioa onartua

Gai-zerrenda osoa onartu zuten

Joan zen asteartean, abenduaren 17an, Udal-Plenoa izan zen. Plenoan eztabaidatu ziren puntuak eta hartutako erabakiak honako hauek:

Begoña Mujika Bake-Epaileak lanpostua uzteko egindako eskaera onartu zuten Udalak. Beraz, oposaketak egingo dira lanpostu hori betetzeko.

Ospitale Zaharreko obrak bertan behera uztea erabaki zen ATBrentzat lokal aproposa aurkitu arte.

Turbideko Zaharren Egoitza berrizteko, Prudentzio Arkerok kontratistari adjudikatu zitzaizkion obrak, 43 milioitako aurrekontuarekin.

Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak aurkeztutako mozioa ere onartu egin zen, bederatzi boto alde eta hamaika abstentziorekin. Alde botatu zutenak HB, EA (bi zeuden) eta EE izan ziren; PSOE eta EAJ abstenitu egin ziren. EHNeren mozioan zera eskatzen zen: nekazariak bere lanaren truke da-

gokien soldata zuzena jasotzea, azokak bultzatzearen aldeko kalitate-politika aurrera eramatea, inguruarekin oreka izango duen nekazaritza lortzea, bizi-modu errurala finkatu eta indartzea eta nekazal politiken boterea deszentralizatzea.

Azkenik, EAJk manifestazio baten ondoren gertatutako ekintzengatik mozio bat aurkeztu zuen. Mozio honek lau puntu zituen; ekintza basatiak gaitzes-tea, manifestazio-ostetan izaten diren harri-jaurtiketa, zabor-erreketa eta abarrak kondenatzea, alkatetzak halakoak ez gertatzeko edo gertatzen direnean neurriak hartzea eta azkena, biolentziaz baliatzen diren partidu edo erakundeek bide hauek utzi eta gizarte demokratikoan gaudenez, adierazpen bideak erabiltzea. Mozio honi PSOEek beste puntu bat gehitu zion eta mozioa EAJ eta PSOEren botoekin onartu zen, EA, EE, eta HBk aurka botatu zutelarik.



URTE BERRI ON!

**Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak**




Iturriotz, 4 ARRASATE Tfnoa 79 14 84




**Kanaria
Irletara bi
lagunentzako
bidaia.**

Sari paregabekak!


Behoko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSEN egingo den zozketan parte hartuz.



Renault Clio 1.1 CL (F. F.)




Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01




Erikite S.L.
SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25

Fototrunkoa



Joxe Mari Otadui "Txosa" zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako
irabazlea:
JOSUNE SAN VICENTE

Argazkikoa nor den esanez, bidali
beheko txartela ARRASATE PRESSera
(Azoka kalea, 1) eta aste honetan IKATZ
ARGAZKI etxeak emango duen opariaren
zozketan sartuko zara.

ERANTZUNA

**Nor da aste honetako
pertsonaia?**


Izena:

Abizena:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:




KATAIDE

Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10




Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi

JANTZIDENDA

Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32



Etorkizunaren erronka

Gertu dagoen erakundea dugu

kutxa, garai berriei aurre egiteko.


Teknika- eta giza baliabiderik
eraginkorrenekin, gailentzeko.

Beharrian berriei egokituriko maila
bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.


Alor guztietan aurrera egiteko.

Etorkizun gero eta lehiakorrago

baterantz.




kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

ARRASATE
ABENDUAK-22



◀ Santamasetako Jai Batzordeak urtero bezala jaietarako kartelak, boletok eta pegatinak atera ditu, baina sekula ez dugu jakin izan nortzuk diren kartel, boletok eta pegatinen egileak. Kartelak

Antton Olariagak egiten ditu eta pegatinak eta boletok, berriz, Aretxabaletako **Iñaki Aranak**.

txutxumi



Joan zen asteko *Fototrukoaren* irabazlea Dabid Zaitegi izan zen. Beste asteetan bezalaxe, askok bidali eta asmatu zuten *Fototrukoko* pertsonaia Enrike Alonso zela. **Dabid Zaitegik** Markiegi jantzizendako alkondara irabazi zuen, baina zein hartu ez zekienez alkondara sorta bat eraman zuen etxera aukeratzeko. ▶



OKDRETEGI taberna

Santamas eta Eguberritan
giro jatorra beti gurean


Juan Carlos Guerra, 5 ARRASATE



Epelde

Jon Zeziaga eta M^a Carmen

Belategi uztailaren 27an Dorletako elizan ezkondu ziren. Zorionak eta zorte on aurrerantzean.




Pasa den asteazkenean, hilak 11, Kajoi Tabernan **Tunantes antzerki-taldeak** skets batzuk antzeztu zituen tabernan zegoen jendearentzat. Honetaz gain, koadrila batek txisteak kontatu zituen eta, azkenik, irlandar eta ingeles batek bibolina eta gitarra jo zuten.



Ageda izeneko txerri emea izango da aurtengo Santamasetan zozketatuko dena. Txerria Santa Agedako Eleizgarai baserrikoa da eta 280 kilo inguru dauzka. Argi dagoenez, ondo hazitako txerria, txorizo ugari egiteko modukoa.



Joan den astean, hilak 12, osteguna, Kajoi Tabernan saldu ziren *Egunkariako Tonbolako* boletoen artean bat 100.000 PTAKoa izan zen. Zortea izan zuena **Jesus Marco**, 59 urteko arrasatearra, izan zen. Ez dago esan beharrik gizona pozik zegoela, ikusi besterik ez dago Edurnek txekea eman zionean jarri zuen pozaurpegia.



SAMEGO GARBIKETAK

URTE BERRI ONA OPA DIZUE!

Uriburu, 24 ARRASATE Tfnoa: 79 70 39





Erdiko kale, 22 ARRASATE Tfnoa: 79 32 27

**Santamas eta Gabon-jai zorientsuak
opa dizkizuegu eta urte berria joan-
dakoa baino hobea izan dadila
guztiontzat.**

MILA ESKER ARRASATERI!



NOLA JOAN EE.BB.ETARA HERRITIK IRTEN BARIK?



Jar ezazu hanka bat Amerikan.
Zatoz DRAFT CENTERera.



Otalora, 21


ARRASATE

DONOSTIA
ORERETA
I R U N
ZUMARRAGA
T O L O S A
SARRIKO
DURANGO
SANTURTZI
I R U Ñ E A



1992ra arte

Zaldibarko Futbito Txapelketaren saltsa, borroka eta emozioak, dagoeneko agur esan dio aurtengo urteari. Egun batzuetarako, bertan dabiltzan gazte guztiak asteroko partidua zita ahaztu ahal izango dute. Dena dela, ez galdu forma gehiegi, urtarrilaren 4a hortxe dago eta.



**ARRASATE
KIROLAK**

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 79 92 42



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- **Errentamenduak**
- **Salmentak**
- **Balorazioak, etab.**



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	= Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	10	7	2	1	54	23	16
Zulu's	10	8	0	2	43	32	16
Akaitegi Express	9	7	1	1	90	28	15
Los Heredia	9	7	1	1	41	18	15
Adobe	9	7	1	1	38	26	15
Kriskibalda	10	5	2	3	42	28	12
Los Manchas	10	5	1	4	68	44	11
Jubilatus	9	4	3	2	43	37	11
G. P. Noski	9	3	3	3	33	21	9
A. Kristaldegia	10	4	1	5	28	25	9
S. Ind. Ugarte	10	3	3	4	26	35	9
Neanthertal's	9	4	0	5	27	22	8
Koxkas	9	2	2	5	41	58	6
Uglys	9	2	0	7	21	39	4
Expert	9	0	2	7	19	67	2
B. D. L.	10	1	0	9	15	70	2
T. San Josepe	9	0	0	9	20	76	0
Tronkoteak	---	---	---	---	---	---	---
Total	160	69	22	69	649	649	160

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Los Motz	10	9	0	1	70	19	18
La Banda	9	8	1	0	46	16	17
Jo ta akabau	10	8	0	2	50	26	16
Fasprint	10	6	3	1	43	22	15
Potroak Lorategi	10	6	1	3	37	26	13
Navarros	9	6	0	3	35	17	12
Danak Lagun	9	5	1	3	32	23	11
Sibilus Rover	10	4	3	3	25	25	11
Ganbelas	10	4	1	5	41	34	9
Gau Azkenak	9	4	1	4	31	26	9
Anbotoste K. T.	9	4	4	4	26	32	9
Bukanak	9	3	1	5	29	43	7
Inter de Alim.	9	2	1	6	21	47	5
Txintxes Osorik	10	1	1	8	20	42	3
M. K. A.	9	1	1	7	17	35	3
Maria del Monte	9	1	0	8	19	57	2
Oleee!	9	0	0	9	18	50	0
Totxus	---	---	---	---	---	---	---
Total	160	72	16	72	560	560	160


C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	10	9	0	1	48	10	18
Gnu. Seg. Bilbao	10	8	1	1	34	7	17
AEK	10	7	2	1	41	24	16
Argi Ibili Mapfre	10	7	1	2	62	29	15
Bar Kajoi	10	7	0	3	60	21	14
New Laso Arregi	10	6	2	2	35	21	14
Diego Antonio	10	6	2	2	35	24	14
ATB	10	5	2	3	42	32	12
Txokeros	10	5	1	4	38	29	11
Aizpun bila	10	5	0	5	43	55	10
Aurrera Bolie!	10	3	2	5	23	28	8
Taberna Monter.	10	2	3	5	30	46	7
Arrasate Press	10	2	1	7	16	39	5
Alaves	10	2	1	7	19	46	5
Bayer de Lenitz	10	2	1	7	18	55	5
Shaktale	10	1	2	7	24	53	4
Sokoakoak	10	1	1	8	28	53	3
Whiskeria Linde	10	1	0	9	29	53	2
Total	180	79	22	79	625	625	180

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Arrasate Kirolak	10	8	1	1	45	16	17
Camerun's Trik.	10	7	2	1	51	19	16
Artzankos Udal.	10	8	0	2	47	21	16
V. C. Daglas	10	7	1	2	55	16	15
Bar Artano	10	7	1	2	44	25	15
Notxingan Flo.	10	7	1	2	37	23	15
Hirei	10	6	0	4	35	27	12
Pepelus	10	6	0	4	33	27	12
Bizkorak	10	5	1	4	33	27	11
Arrasate Comer.	10	5	1	4	22	26	11
Ghana	10	5	0	5	40	30	10
Kakajauri	10	3	0	7	21	37	6
Nagixak	10	2	2	6	22	36	6
Ezkinako Hontza	10	3	0	7	23	49	6
Balaie	10	2	1	7	19	46	5
Resakas	10	2	0	8	26	46	4
Atxanta ke te...	10	1	0	9	17	64	2
Sukumurus	10	0	1	9	13	45	1
Total	180	84	12	84	580	580	180

JMA JMA



Baina ze kristo gertatzen da? nolatan utzi diezue bakar-bakarrik? Mutilak, horrela jarraitzen badugu ez daukagu zer eginik ez! Ea, bada espabilatzen garen, bestela ni banoa. Horrela jokatzeke, hobeto gaude etxean.

EMAITZAK

A taldea

Los Heredia 3	Neanthertal's 2
Koxkas 4	Arrasate Kristaldegia 1
Jubilatus 6	B. D. L. 3
G. P. Nosk 2	Fosforos 2
Uglys 2	Sum. Ind. Ugarte 3
Akaitegi Express 16	Talleres San Josepe 5
Kriskibalda 8	Los Manchas 2
Expert 3	Zulu's 4

B taldea

Los Motz 8	MKA 1
Potroak Lorategi 2	La Banda 4
Bukanak 5	Ganbelas 2
Anbotoste K. T. 0	Jo ta akabau 1
Danok Lagun 3	Fasprint 1
Gau Azkenak 0	Sibilus Rover 0
Maria del Monte 6	Inter de Alimañas 7
Txitxes Osorik 1	Navarros 3

C taldea

Diego Antonio 3	Txokeros 1
Aizpun Bila 9	Arrasate Press 0
Sokoakoak 5	Alaves 1
New Laso Arregi 5	Argi Ibilii Mapfre 5
Monterey taberna 1	AEK 9
Shaktale 2	Bar Kajoi 8
Gnu Seg. Bilbao 4	Aurrera bolie! 1
Arrasate Telebista 1	Adelaida 4
Whiskeria Linde 7	Bayer de Lenitz 1

D taldea

Nagixak 1	Bar Artano 5
Pepelus 4	Balaika 2
Sukumurus Anboto 2	Ezkinako Hontzak 4
Artzankos Udalaiz 7	Hirei 3
Arrasate Kirolak 8	Kakajauri 0
Bizkorak 3	Camerun's Trikiti 2
Ghana 6	Atxanta ke te merece 2
V. C. Daglas 7	Resakas 3
Arrasate Comercial 2	Notxingan Florest 4


Estrategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

Eskiña

taberna

Olarte, 25
ARRASATE
Tfnoa: 79 0220



ERROTA-GAIN

Aluminioak

Aluminiozko leihoak (haustura termikoa) eta PVC

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41



Txutak

Urte berri ona

Uste baino gehiago sufritu behar izan zuten Zaldibarko Futbito Txapelketan, joan den asteburuan faboritotzat jotzen zirenek. Gehienek irabaztea lortu bazuten ere, faborito batzuei ezinezkoa izan zitzairen: Fosforos taldearen berdinketa edo Cameruns-en porrota kasu. Batzuk golik egin barik gelditu ziren moduan, beste batzuk piloa sartu zituzten: 16 Akaitegi Expres-ek eta 9 Aizpun Bila eta AEK-k. Azkenik, aipagarriena Whiskeria Linde taldeak lortutako garaipena izan daiteke; aurtengo txapelketan talde honek lortzen duen lehena da eta.

Joan den astekoa alde batera, esan

behar da datorren urtera arte, Santamasak eta Gabonak medio, ez zaiola jarraituko txapelketari. Jarraipena, urtarrilaren 4eko asteburuan emango zaio. Berez, 1992ko lehen ihardunaldi horretan ez da aurrikusten aparteko partidu interesgarririk; baina, ustekaberen bat baino gehiago izan daiteke, normalean geldialdiak traidore samarrak izaten dira eta. Hori gutxi balitz, ez da ahaztu behar jai ugari dagoela hemendik urtarrilaren 4ra bitartera eta ondorioak nabari daitezke.

Gerta daitekeena ikusi arte, jai zorionsuenak eta urteberri oparoena futbito kronika honen irakurleei eta baita gainontzekoei ere.

BEÑARDO KORTABARRIA


DATORREN URTEAN

A taldea	
Los Heredia	Talleres San Josepe
Jubilatus	Fosforos
G. P. Noski	Los Manchas
Koxka's	Zulu's
Sum. Ind. Ugarte	B. D. L.
Adobe	Akaitegi Expres
Uglys	Neanthorla's
Arrasate Kristaldegia	Expert

B taldea	
Potroak Lorategi	Inter de Alimañas
Anbotoste K. T.	Fasprint
Danok Lagun	Oteel!
Bukanak	Navarros
Sibilus Rover	Jo ta akabau!
M. K. A.	María del Monte
Gau Azkenak	La Banda
Garbelas	Txintxes Osorik

C taldea	
Diego Antonio	ATB
Aizpun Bila	Aurrera Bolie!
New Laso Arregi	AEK
Monterrey taberna	Adelaida
Sokoakoak	Bayer de Lenitz
Bar Kajoj	Argi Ibilii
Txokeros	Gru. Seg. Bilbao.
Shaktale	Arrasate Press
Alaves	Whiskeria Linde

D taldea	
Nagixak	V. C. Daglas
Pepelus	Abxanta ke te...
Artzankos Udalaiz	Kakajauri
Arrasate Kirolak	Resakas
Sukumurus Anboto	Notxingan Flo
Cameruns Trikiti	Hirei
Bar Artano	Ghana
Bizkorrak	Balaikae
Ezkinako Hontzak	Arrasate Comercial



Legarre Pabilioia.
ARRASATE
Tfnoa: 79 62 11

EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

ITURRIOTZ

TABERNA



GIRORIK
JATORRENA !!
Tfnoa: 79 16 04

ñaki Gurrutxaga, "Harresti", Olentzero hitz batean.

Triphandi hau, bizarduna, baserriarrez jantzita, pipa hartuta, urtero Gabon bezperan umeen gozamenerako Arrasateko kaleetan zehar ibiltzen da. Txikienen ametsak errealitate bihurtzen dituen pertsonaia, luzarorako dirudienez.

— Zergatik Olentzero?

— Bere itxura dudalako.

— Zer egiten du Eskoriatzako Olentzerok Arrasaten?

— Beno, Eskoriatzan bizi naiz baina arrasatearra naiz. Dagoeneko, badira hamazazpi urte egunero-egunero Arrasatera etortzen. Olentzerorena egiten Eskoriatzan hasi nintzen, bi urtez egin nuen bertako Ikastolan. Sei urte daramatzat Arrasateko Olentzeroa izaten eta ez dut uzteko asmorik.

— Zer deritzozu Olentzeroren ohiturari?

— Uste dut alderdi guztietatik ondo ikusita dagoen gauza dela. Gainera, kontuan hartu behar da geura dela, Euskal Herriko ohitura.

— Nola joaten zaizu Gabon-Bezpera?


— Arratsaldeko 6ak aldeira jaisten naiz kalera. Umeak ikusten nautenean, lehen umeen harrirtuta gelditzen dira, begira-begira. Gero, gozokiak banatzen hasten naizenerako erdi-zoratuta ibiltzen dira; zer esanik ez ikatza banatzerakoan, gezurra badirudi ere ikatza asko estimatzen dute umeek. Plazara iristen naizen umea izaten da txarrena, denak gainera etortzen zaizkit eta.

— Ez da lan gogorra?

— Berez, ez. Euria egin-go balu, gogorra izango litzateke, baina eguraldi onarekin ez. Umeak? Beno, batzuk aspergarriak dira, den-

Olentzero

"Umeen Gabonetako ilusioa"



bora guztian atzetik etortzen direlako, baina jasan daiteke. Politenak ume txikiak dira, aurpegi bitxiak jartzen dituzte.

— Txoronpiok jasotako gutun guztiak irakurtzen dituzu?

— Bai, noski! Baina ez neuk bakarrik, laguntzaile asko ditut eta. Geroz eta gutun gehiago iristen zaizkigu, ia 700 jaso nituen.

— Eta, zer eskatzen dute Arrasateko umeek?

— Denetarik dago. Batzuek gauza normalak eska-

tzen dituzte eta gauza batekin konformatzen direnak ere badira; beste batzuek, ordea, gauza gehiegi eskatzen dituzte. Bat baino gehiago izan dira gutun normala bidali beharrean, opari-katalogoak bidali dizkidatenak ere, Corte Ingeles eta horrelakotakoak. Orain bi urte, gauza harrigarria eskatu zidan mutiko batek, Chorizo Pamplo-naz egindako ogitartekoa.

— Aurten opari asko ekarriko dituzu?

— Inoiz baino gehiago, aurrekontua handitu digute-

nez...

— Elurrik ekarri behar duzu?

— Ba, ez dakit ahal izango dudana. Orain arte, etorri naizen guztietan eguraldi ona ekarri dut eta hori ez da gutxi. Gustatuko litzaidake elurrarekin batera etortzea, giro politagoa sortzen da eta. Ikusiko dugu.

— 24ean bakarrik ikusten zaitugu, non pasatzen duzu urte osoa?

— Mendian, ikatza egiten, baserrian bakarrik bizi naiz eta.

— Toki askotan Olentzero erre egiten dute, zer deritzozu ohitura horri?

— Uste dut umeentzat kolpe izugarria dela hori, askok negar ere egiten dute. Umea banintz, niretzat oso penagarria izango litzateke arratsalde osoa miresten egon naizen pertsonaia gero erretzen ikustea. Orain toki askotan erretzeko ohiturarekin bukatu dute, eskerrak!

— Dena dela, Olentzero ilusio bat besterik ez da, ez?

— Bai halaxe da, baina ume txikiengatik pozgarria denez eutsi egin behar zaio. Joan den astean lagun bat etorri zitzaidan, esanez bere semea enteratu zela Olentzero ez dela benetakoa eta etxera negar batean itzuli zela. Alde horretatik, umeek disgusto handiak hartzen dituzte, baina hobe da behintzat urte batzuetan pozik eta ilusioz bizi badira.

— Olentzero opariz beteta etortzen den pertsonaia da, zeuretzat zein izango litzateke oparirik ederrena?

— Niretzat, datorren urtean guztiak preso, deportatu eta errefuxiatu guztiak hemen izatea izango litzateke oparirik ederrena. Gainontzean, arrasatear guztiek ondo pasatzea eta datorren urtea ere ona izan dezatela guztiek.

— **“Behin ume batek Chorizo Pamplonaz egindako ogitartekoa eskatu zidan”**

Ohiturak ohitura hemen eta han Gabonak

Euskal Herrian ezezik, munduko beste bazter askotan ere ospatu ohi dituzte Gabonak. Hemendik kanpo dauden ohiturak ezagutu asmoz, Arrasaten bizi diren atzerritar batzuekin hitz egin dugu. Guk bildutakoak baino atzerritar gehiago bizi dira Arrasaten, beraz bete hainbat ohituraren berri jasotzeko aukerarik ez dugu izan. Hala ere, badira bitxikeria interesgarriak ondorengo lerroetan.

Ute Papenhagen, alemaniarra

Arrasatearrei "Gabon ederrak opa eta urte berrian irristada on bat eginez sartu daitezela" esaten diena Ute Papenhagen alemaniarra da, orain Arrasatera etorri berri den emakumea. Orain gutxira arte, Ekialdeko Alemania zenekoa da Ute Papenhagen. "Alemanian Gabonak bi iruditan oinarritzen dira batez ere, Gabonetako Gizonean eta zuhaitzean. Gabonetako Gizona, Santa Claus edo Papa Noel-en antzeko zerbait izan daiteke, gorriz jazten den gizon on bat. Gabonetako zuhaitza, berriz, Alemanian esan nahi handiko gauza da. Abenduaren 24ean guraso eta seme-alaben artean zuhaitza apaintzen da. Arratsaldean, 4ak aldera, jende gehiena mezataria joaten da, bi ordu irauten duen mezata-

ra. Bukatzen denean, etxera joan eta opariak banatzen dira zuhaitzaren inguruan. Ondoren afaria dator, goiz dirudi baina kontuan hartu



Ute Papenhagen, alemaniarra

"Ein schönes, angenehmes Weihnachtsfest und einen guten Rutsch ins neue Jahr von Ute ans Deutschland"

behar da Alemanian neguan ilun dagoela ordu horretarako. Afarian, saltxitxak, patata egosiak, aza berdea pasekin eta hegaztiren bat jaten dira. Urte zaharraren agurra etxafleruen bitartez egiten da, zarata handia ateraz; batzuek etxean pasatzen dute, besteek kotilloietan. Urteberria iristen denean, berun-zati bat uretara bota eta zerbait desiratzeko ohitura ere badago".

Alina Piñeiro, kubatarra

Euskal Herrira ezkondu zen arte, Alina Piñeiro kubatarra ez zuen Gabonik ezagutzen. Gabonak ospatu beharrean, Kuban, urte berriarekin batera, Iraultzaren Garaipena ospatzen dute. Izan ere, 1959. urteko urtarrilaren 1-ean Fidel Castoren iraultzaren garaipena izan zen.

"Gabonik ez egonda ere, egun garrantzitsu hori ospatzeko abenduaren 31n biltzen gara afariaren inguruan, batzuk familia txikietan, beste batzuk familia handietan eta beste batzuk Cabarèt-etan ere bai. Txerria labean errea, entsalada, Yuca eta baba beltzak izaten dira menuan. Gero, dantzarako izaten dugu gauaren zati handi bat, Kuban dantzak garrantzi handia du eta. Hurrengo eguna jai izaten da, baina ez da apartekorik egiten. Nik ez dut ezagutu, baina lehen ospatzen ziren Gabonak.

Txikia nintzenean gogoratzten dut Gabonetako zuhaitzen bat ikusi nuela, baina besterik ez. Argi dago Kuban gaur egun ezin direla Gabonak hemen bezala ospatu, han eguneroko janaria ateratzean nahikoa lan dago eta. Hemengo Gabonak asko gustatzen zaizkit, jendea gustorago ibiltzen dela iruditzen zait eta.

Arrasatear guztiei, Zorionak!, kubatar honen partez eta urtea ondo bukatu".



Alina Piñeiro, kubatarra

"Kuban Gabonak ospatu beharrean, iraultzaren urtemugaren jaia egiten dugu, urtarrilaren 1-ean izaten da eta"

Ipar Irlanda eta Ingalaterra

John Nelson ipar irlandarrak eta Mike Church ingelesak denbora asko daramate gure artean. Bi herrialdeen artean ez dago diferentzia handirik Gabonak ospatzeko orduan. "Bai Ingalaterran baita Ipar Irlandan ere, Gabonak askoz ere lehenago hasten dira giro-tzen: dendak aspaldiit har-tzen dute Gabon ixura, jen-

abenduaren hasieran erosten da eta apaintzen hasi...".

"Aipagarria da -dio John Nelsonek- jendeak postalak bidaltzeko duen ohitura. Aurtent, nik neuk 35en bat bidali ditut eta han banengo gehiago izango lirateke".

"Gabon-gaua etxean edo bestela guatekeren batean pasatzen da. 25a umeentzat opariak irekitzeko eguna izaten da. Gogoratzen dut -dio Mike Churchek- ni txi-

egin eta gero telebista ikusten. Behar bada, Ingalaterra eta Ipar Irlandako Gabonen gauzarik aipagarriena, Boxing Day deritzona da, 26a izaten da, jaieguna. Dirudienez lehen aberatsak Gabonak 25ean ospatzen zituzten; 26an, haiek emandakoarekin, jende arruntak ospatzen zituen. Gaur egun 26a, kirola ikusteko eguna da, denetarik izaten bait da".

"Urte berriari ongi etorria? Ba kotilloiren batera joanda egiten da. Lehen, ur-tarrilaren 1-a laneguna zen, baina lan-istripu asko izaten zenez, kendu egin zuten. Eskozian, urte berriari ongi etorria emateko bada ohitura bitxi bat: etxe guztiek atek zabalik izaten dituzte eta ikatz-zati batekin doan guztia sar daiteke zerbait harzera".

Mary Watson, Santa Clausen eskutik

New York estatukoa da Mary Watson, Albany hirikoa hain zuzen ere. EEBBetako Gabonak eta Britainia Handikoak ez dute diferentzia handiegirik. "Behar bada, ni bizi naizen inguruko aipagarriena elurra izan daiteke, urtero egiten du eta. Gabon eguna iritsi aurretik zuhaitzaren bila joaten da jendea, ahalik eta zuhaitzik handiena eskuratzen. 24a, zuhaitza apaintzen pasatzen dugu. Hurrengo egunean, berriz, gosari berezi sama-



Mary Watson, amerikarra

"EEBBetan, 25ean etxean dagoen arroparik dotoreena jazen dugu elkarrekin bazkaltzeko"

rra egin ondoren, gauean Santa Clausek zuhaitzpean utzitako opariak banatzen dira. Gero jendea elurretara ateratzen da edo bazkaria prestatzen hasten da, indioilarra gehienetan. Bazkarirako, arroparik dotoreena jazen dugu. Arratsaldean telebistan ematen duten filme zaharra ikusten eta jaten pasatzen dugu. 31ko jaia desberdina izaten da, jende guztia kalera ateratzen bait da. Hamabiak jotzen ditue-nean mundu guztiari musuak eman eta oihuka hasteko ohitura dago, gero parranda egiteko. Hori nire etxean egiten zen, baina EEBBetan talde etniko ugari dago eta bakoitzak bere erara ospatzen ditu Gabonak".



John Nelson eta Mike Church, ipar irlandarra eta ingelesa

"Wishing you all a Merry Christmas and a Happy New Year edo guztioi Gabon zoriontsuak eta urte berri emankorra opadizuegu", zioten John Nelson eta Mike Church-ek, Ahizken ingelesa irakasten duten bi gazte britainiar hauek.

deak gauzak erosten denbora asko pasatzen du, umeak egun askotan ibiltzen dira atez ate kantuan, telebistak behin eta berriz gogorarazten ditu iristear dauden egunak, Gabonetako zuhaitza

kia nintzenezan irrikaz egoten nintzela opariak zabal-tzeko eta Erreginarenean dis-kurtsoa bukatu arte ez zida-tela uzten, eta luzea izaten zen benetan! 25a etxean pa-satzen da, bazkari handia



PAZI-OLA

S.A

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91



Kros arrakastatsua

Arrakastatsua izan zen joan den igandean egindako Santamas Krosaren hamahirugarren edizioa. Maila desberdinak kontuan harturik, 140 korrikalari izan ziren Arrasateko kaleetan barrena lasterka ibili zirenak. Irabazleak, kategoria ezberdinetan, ondorengo hauek izan ziren: 13-14 urte, Aitor Bergaretxe eta Amaia Ramos; 11-12 urte, Iker Okaranza eta Saioa Baena; 10 urte, Jose M^a Galan eta Maider

Heriz; 9 urte, Galder Kabiketa eta Eneritz Merino; 8 urte, Iker Lazpiur eta Ainhoa Zenitagonaindia; 7 urte, Iker Elorza eta Amaia Lazkano. Aipagarria koadrilaren arteko proba ere, 60 partehartzailerekin eta *Carracoles* koadrilaren garaipenarekin; banakako sailkapenean, lehena Enrike Kabiketa, bigarren Alex Saavedra eta hirugarren Pedro Zalama.

Federatu-txartela

Besaiden federatu txartelak eskuratzeko aukera dago. Mendizaletasuna, skia, eskalada, espeleologia eta kanpina babesten ditu mendi-aseguru honek. Aurtentzen federatuta izan direnei zuzenean tramitatuko zaie txartela; beraz, norbaitek baja hartu nahi badu elkartean utz dezala abisua.



Hurrengo partidua

Azken ihardunaldietako emaitza txarrei buelta emanez, azkenik mondragoetarrek garaipena ezagutzeko aukera izan zuten, ez nolanhiko zelaian gainera. Partidua hasi aurretik, zornotzarren aurkako neurketa oso zail ikusten zen eta seguruen Arrasateko zaletu batek baino gehiagok berdinketa ere sinatuko zukeen. Futbolak horrelako gauzak dauzka, gutxien uste zenean, zelai eta arerio zail baten aurrean, Mondrak azken aldiko joerari buelta eman zion eta garaipena eskuratu. Partidua ez zen ikusgarria izan, bai, ordea, erabat praktikoa arrasatearren aldetik: atzekaldean seriotasuna eta ahal zenean kontraeraso azkarra. Argi dagoenez, ondorioa guztiz baikorra izan zen.

Dena dela, garaipena ez da guztia eta aipatu behar da berriro ere Patxi lesionatu egin zela, errotulako arazoren bategin eta badirudi gainera lutzerako izan daitekeela.

Datorren astean, Galdakao taldea Atxabalpera. Teorian erraz irabazi beharko lukete arrasatearrek, baina kontuan hartu behar da etxean ez dabilzala oso fin. Dena dela, ezin da ilusorik galdu eta aurreneko postuei heltzeko ahalegin guztia egin behar dute arrasatearrek; lau lehenengoek igotzeko "play-off" a jokatu dute eta.



SUKALDIAK

URTE BERRI ON!

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

ZORIONAK!

Ignazio Zuloaga, 4 Tfnoa: 79 05 07

ELENA LANUZA

Txapelketarako prest

Elena Lanuza, gimnasia erritmikoan diharduen 13 urtetako arrasatearra da. Telebistan ikusita, kirol hau benetan ederra zela iruditu zitzaion eta pantaila osteko neska haienak bezalako mugimenduak egitea gustatuko zitzaiokeela pentsatu zuen. Orduan, Arrasateko Gimnasia Erritmikako Taldean sartzea erabaki zuen. *"Badakit oso berandu hasi nintzela, kirol honi txiki-txikitatik ekin behar zaio eta. Normalean goiz hasitako neskatilak 9 urtetarako txapelketetan parte hartzen hasten dira, ni berriz oraintxe nago gertu horretarako, 13 urte ditudala"*.

Elenak ez daki oraindik zein lehiaketatan parte hartu behar duen, berak gainera nahiago du eguneroko lana gogoz eta gustora egin. Gimnasia erritmikoko elementu errazena, berriz, soka dela iruditzen zaio, eta zailena mazak. *"Bi elementu horiek mugitu, airera bota eta jasotzea ez da txantxetakoa. Hasieran, flexibilitatea eta saltoak lantzen hasi nintzen eta noski hau menperatu ondoren, beti duzu zerbait berria ikasi beharra"*.

Bestalde kirol honek ez dio beste munduko sakrifizioirik eskatzen. Amak egunero mahaian jartzen diona jaten du eta, beraz, ez du neurrian egoteko ezer berezirik egin behar. *"Jendeak uste*

PODIUMA



du beti erregimenean gaudela, baina gure kasuan behintzat ez da horrela".

Egiten dituzten gauzak ikusita, egiten du kirol hau oso arriskutsua dela, baina dakienari ez zaio honela iruditzen. *"Ondo berotuz gero, ez dago arriskurik. Ez dut beste munduko lesio-rik izan, tiroi bat izan nuen bizkarrean baina nire kulpagatik izan zen. Baina flexibilitatea nahikoa eta kirol honetan aritzeko behar diren erreflejuak badi-tuzu ez dago arriskurik"*.

Pozik ageri da Elena eta entrenamenduetara ere halaxe joaten da. *"Astero hiru egunetan izaten ditugu entrenamenduak, ordu t' erdi hain zuzen ere, eta batzuetan larunbatetan ere bai"*.

Urtea amaitzekotan dago eta Elena urte berriaren zain, honek aukera berria eskaniko bait dio, txapelketetan parte hartzea. Jadanik gehien gustatzen zaion more koloreko mailota prest du, eta ikasitako guztia balentriaz erakusteko aukera baino ez du behar.

Gabonetako saskibalo txapelketa

Berriro ere, Arrasate Saski Baloi taldeak Gabonetako Koadrilen arteko txapelketa antolatu du. Aurten txapelketari abenduaren 23an emango zaio hasiera eta hogeitabat koadrila izango dira lehian. Txapelketa honen antolakuntzak eskatzen duen lana kontuan hartuta, aurten Arrasate Saski Baloikoek ez zuten antolatzeko asmorik; azkenean, ikusirik 200 gaztek txapelketan parte hartzeko gogoia zutela, antolatu egin behar izan dute.

Aipatutako hobegaitabat taldeak zazpi taldekohiru multzotan banatu dira. Multzo bakoitzean, elkarren artean jokatuko dute talde guztiak eta sailkapenaren arabera bi taldek lortuko dute bigarren faseko txartela. Bigarren faseko sailkatutako sei taldeekin bi multzo egingo dira. Azken partidua, urtarrilaren 5ean jokatuko da bigarren faseko multzoetan lehen postuan sailkatzen diren bi taldeen artean.

Guztira 70 partidu jokatuko dira Gabonetako txapelketa honetan, 63 partidu 23, 24, 27, 28, 29, 30 eta 31n. Bigarren fasean 6 partidu jokatuko dira, urtarrilaren 2, 3 eta 4ean. Azkena, esan bezala, urtarrilaren 5ean. Partidu guztiak Iturripen jokatuko dira.



Etxe txukuna
Txoko kuttuna

Ehune

Apainketa

Otalora, 21 ARRASATE Tfnoa: 77 11 48

Eta 24ean zer afalduko dugu?


Urte batzuetatik hona, aldaketa handiak izan dira sukaldaritzan ere. Orain urte batzuk, inbernadero eta pizifaktoriarik ez zegoenean, garaian garaiko gauzak jaten ziren eta kitto!, ez zegoen beste erremediorik; orain berriz, urteko edozein garaitan edozer gauza jateko aukera dago. Gabonetan ere bai, noski.

Lehen, etxean edo baserrian bertan jaso zitekeena jateko ohitura zegoen, hau da: oilo-salda, aza egosia odolostearekin, eta gero kapoia, paboa ala oilaskoa. Arraina nahi zuenak, derri-gorrez erosi egin behar zuen.

Beraz, ohitura zaharrak nolabait gaurkotu eta Gabon gauerako ondorengo menu hau proposatzen dizuet:

1. Aza eta odolosteaz egindako Crepeak.
2. Bixigua.
3. Intxaur-saltsa.

1. Lehenik aza eta odo-




Alberto Elortza

lostekak egosi behar dira, aparte, olio eta gatz apur batekin eta denbora hartuta.

Crepeak egiteko, uruna, arraultzak eta esnea behar dira. Arraultza eta uruna ondo nahastu. Kremari eman nahi zaion loditasunaren arabera, esnea bota ondoren eta gero gatz. Azkenik, aza eta odolkiarekin bete, labean sartu, doratu apur bat eta kitto.

2. Bixigua oso garesti

badago, legatza, txitxarroa edo eta kabarroka era berdinean egin daitezke. Ontzi batean, olio, berakatz eta kipula jartzen dira. Bixigua garbitu eta gero, zabaldua edo osorik, labean sartzen da, su txikiarekin bestela erre egingo da eta. Labean dagoela, hezurak askatzen hasten zaizkionean bixigua kanpora ateratzen da. Bixigua kanpoan, zartagin batean olio, berakatz eta pipermin apur batekin sofrtoa egiten da. Eginda dagoenean, bixiguari gaindik botatzen zaio,



eta ondoren binagre edo limoi tanta batzuk.

3. Sei pertsonarentzat intxaur-saltsa egiteko, osagarri hauek behar dira: 250 gramo azukrea, 250 gramo intxaur (garbituta), 2 litro esne, kanela pittin bat eta ogi arrailatua.

Intxaurra txiki-txiki egin eta litro bat esnerekin egosten jarri. Agortzen denean, beste litroa bota behar zaio, kanela eta azukrearekin batera. Oso mehe gelditzen bada, ogi arrailatua bota.

Gabonak direnez, ezin ahaztu etxeetan ezin dela ez turroirik, ezta konpotarik ere falta. Edariei dagokienez, Conde de Valdemar gorria edo Viña Arana beltza gomendatuko nituzke; ardo-txuria baino, hobe txakolin on bat.

Besterik ez, on egin denoi eta Gabon onak igaro!

ALBERTO ELORTZA
ARANTZAZUKO

ZELAI-ZABAL JATETXEKO
SUKALDARIA

eya SUKALDEAK

DEKORAZIOAN ESPEZIALIZATUTAKO DENDA

- Sukaldeak
- Bainugelak
- Opariak
- Osagaiak

Ignazio Zuloaga, 4 ARRASATE Tfnoa: 79 05 07 Faxa: 79 05 07

Haur eta gazteentzako liburuak

- Gomendagarriak
- Oso gomendagarriak

6 urtetik aurrera

- *Sorgin bat bizikletan* (Abeza, E.) Elkar: Sirena bil.
- *Aitona maitea* (Abeya, E.) Elkar: Sirena bilduma
- *Untxiaren hegada* (Alcantara, R.) Erein: Leihio saila
- *Ispilumari* (Duran, T.) Erein: Ahate bihurriarenak bild.
- *Doña Karmen* (Galiziako ipuin herrikoia) Erein.
- *Ilargiak hitzegingo balu* (Gardellas, M.A.) Elkar: Sirena bild.
- *Igel eta Ugelekin egunak igaroz* (Lobel, A.) Desclée de Brouwer.
- *Igel eta Ugel adiskideak dira* (Lobel, A.) Desclée de Brouwer.
- *Igel eta Ugel banaezinak* (Lobel, A.) Desclée de Brouwer.
- *Juan Zikinen anaia* (Mata, M.) Elkar: Sirena bil.
- *Eskailera erraldoia* (Mathieu, R.) Elkar: Sirena bild.

- *Nire txolarrea* (Olle, M.A.) Elkar: Sirena bilduma.
- *Augusto eta Augustina pailazoak* (Preussler, O.) S.M.
- *Bibotea eta Joxanton* (Sarsanedas, J.) Erein: Leihio saila.
- *Aziak zurrin-zurrinka* (Zubizarreta, I.) Erein: Ahate bihurriarenak bild.
- *Isasoan galdurik* (Zubizarreta, I.) Erein: Ahate bihurriarenak bild.

8 urtetik aurrera

- *Nork lagunduko du etxean?* (Alcantara, R.) Edelvives.
- *Bakarnek ez du lagunik* (Calleja, S.) Elkar: Perkax saila.
- *Kleta bizikleta* (Landa, M.) Elkar: Perkax saila.
- *Irma* (Landa, M.) Elkar: Txalupa saila.
- *Aintzirako ahotsak* (Lopez, X.) Elkar: Txalupa saila.
- *Puxkin* (Mendiguren Elizegi, X.) Elkar: Perkax saila.
- *Amona maite, zure Susik* (Nöstlinger, C.) S.M.
- *Hau eskola bada ni ti-*

grea naiz (Viza, M.) Elkar: Txalupa saila.

10 urtetik aurrera

- *Pinpilinpauxa gardena* (Calleja, S.) Edelvives.
- *Sorginak* (Dahl, R.) Erein: Auskalo saila.
- *Matilda* (Dahl, R.) Desclée de Brouwer.
- *Hugo* (Gripe, M.) S.M.
- *Beltza! Beltza!* (Garmendia, X.) Erein: Auskalo saila.
- *Benek Anna maite du* (Härtling, P.) Elkar: Itzul saila.
- *Alex* (Landa, M.) Erein: Siberia treneko ipuinak saila
- *Marmarti eta mamut iletsua* (Sampson, D.) S.M.
- *Izeba Mariasunen ipuinak* (Sarrionandia, J.) Elkar: Perkax saila.

12 urtetik aurrera

- *Euli zomorroa* (Balzola, A.) Erein: Auskalo saila.
- *Aliciaren abenturak lurralde miresgarrian* (Carroll, L.) Pamiela.
- *Erraldoi on miragarria* (Dahl, R.) Erein: Auskalo

saila.

- *Gautxoriak* (Haugen, T.) Elkar: Itzul saila.
- *Irakasletxoak* (Krenzer, R.) Elkar: Itzul saila.
- *Sardina ezpain gorriaren kasua* (Lertxundi, A.) Erein.
- *Bandolariaren andragai* (Lobe, M.) S.M.
- *Pirataren ibilaldia* (London, J.) Elkar: Branka saila.
- *Jo eta ihes* (Phipson, J.) Elkar: Branka saila.
- *Eskuitz misterioitsua* (Terlow, J.) S.M.

14 urtetik aurrera

- *Port Lajoyeko sorgina* (Barkhouse, J.) Elkar: Branka saila.
- *Zendako preso* (Hope, A.) Elkar: Branka saila.
- *Metxa esaten dioten agirretar bat* (Izagirre, K.) Elkar: Branka saila.
- *Tigrea kristal atzean* (Zei, A.) Elkar: Branka saila.

ESKORIATZAKO IRAKASLE
ESKOLAKO
HAUR-LIBURU MINTEGIA




**Gabonetan ere
etorri
ITURRIOTZ
tabernara**

**Tfnoa: 79 16 04
ARRASATE**

Larunbatean parrokian Goikobaluren kontzertua

Santamasak direla eta, larunbatean Goikobalu Abesbatzak kontzertua eskainiko du herriko parrokian, arratsaldeko Setatik aurrera. Luis Ignacio Ruiz de Alegriak zuzentzen duen abesbatzak eskainitako kontzertua bi zatitan banatuko da: lehen zatian Jesus Guridi, Aita Donostia, Usandizaga eta herri-musika landu duten beste konposatzaile batzuen lanak kantatuko dira; bigarrean, berriz, lan sinfoniko koralei ekingo zaie, Mozart, Haydn eta Haendelen lanak interpretatuz. Kontzertu honen berezitasuna, bigarren zatian horretan dago, hemendik aurrera Goikobaluk musika koralsinfonikoa lantzeko asmoa du eta.



Abesbatzakoen lanean laguntzeko, Aitor Oleagak joko du organoa eta bakarka kantatuko duten pertsonak ondorengo hauek izango dira: Rakek Guridi eta Maider Ruiz sopranoak; Juan Bautista Agirre, Gabriel Mendizabal eta Josetxo Urrutia tenoreak eta Iñaki Olaizola baxuak.

Kontzertu hau, Goikobaluk Arrasaten eskaintzen duen hirugarrena izango da. Urtea bukatzera doanez, aurten Goikobaluk egindakoa labur-labur aipatuko dugu. Urteari hasiera emateko, Goikobaluk Hondarribia eta Lizarran kontzertuak eskaini zituen; ondoren, Gales-era bidaiatu egin zuen eta handik bueltan Ejea de los Caballeros-en lehen saria eskuratu; bukatzeko, beste kontzertu batzuk Eibar eta Donapaleun eman dituela esan behar da. Urte emankorra, du-darik gabe.


**Santamasetako
kantua 1991-12-2**

Gizendu jaku txarrixa
saltoka dabil herrixa
aintxinako iturrixa
umore barri barrixa.

Talua, arto uruna
eta baserriko lanak,
erakusten bagabiltz baña
lekutan daz horreik danak.

Sasoi bateko ohiturak
etortzen jaku gogora
tertulian egoteko
bazan nahikua denpora.

Orduko erromerixak
dantza suelto eta arda
haxe zan jaixa sanua
oin barriz dana libre dau.



UDALA ATEAK

Angel Lorenzo

- Erakusketa, salmenta eta instalazioa.
- Ateak, errodapiak, tarimak, etab.

Kale Aldea, 13
ARRASATE
Tfnoa: 77 04 90

Maribi Barreno

Jaietako karrozen diseinatzaile eta egilea

Maribi Barrenok, 27 urteko neska arrasatearrak, Bilbon Arte Ederrak ikasi zuen. Gaur egun publizitate agentzia batean dihardu lanean, marrazkiak egiten eta azalak diseinatzen. Horretaz gain, San Juanetako eta Haratuztetako karrozak diseinatzen ditu.

— Karrozak diseinatzen hasi zinenetik, zenbat diseinatu dituzu?

— Zazpi izan direla uste dut. Bi Haratuztetarako eta gainontzekoak San Juanetarako; azken huetan, bai haurrena eta bai nagusia diseinatu ditut.

— Zein pauso eman behar dira karroza bat diseinatzeko orduan?

— Gaia libre izaten denez, egin behar den lehenengo gauza gaia pentsatzea da. Ondoren, kontuan hartu behar dira karrozak edukiko dituen zabalera eta luzera; Arrasateko kasuan, luzezka denez,



ipini behar diren elementu guztiak ikusteko eskailera erara ipini behar dira.

Bestela, elementu zentral bat jarri eta inguruan detaile batzuk ere jar daitezke. Gainera, kontuan hartu behar dira kolorea eta materiala. Materialetan, nik gehien erabili izan dudana igeltsua da, moldeatzeko eta harrien itxura hartzeko erraza bait da. Paper eta ohialekin ere behin egin

nuen lan eta oso polita gelditu zen, baina material horiekin lan egiteko denbora asko behar da.

— Ez du pena ematen egun bakar baterako hainbeste lan egiteak?

— Horixe ematen duela pena. Denbora mordoa pasatzen dut lan hori pentsatu, eta prestatzen, gero komentario gutxi batzuk entzuteko eta ordu pare batean kalean jendeak

ikusteko. San Juanetan aste batean haurren karroza izaten da eta hori pasatu ondoren berehala hasten naiz hurrengo asterako nagusien karroza prestatzen, eta orduan ere gauza bera gertatzen da.

— Haurren karroza eta nagusia egiten dituzula aipatu duzu zein egiten duzu; gustoen?

— Gustoen haurrena egiten dut, beraiengan pentsatuz egiten dut. Karroza gainean jartzen direnean beraiei gustatu eta gustora egon daitezen pentsatzen dut. Hau egiten dudanean ez dut nagusien eritzian pentsatzen.

— Lan honen alde fina eta gogorra egiten duzu; karroza gehiago egiteko asmorik bai?

— Nik gustora egiten dut lan hau, sormenezko lana da eta hori da niri gustatzen zaidana. Dena dela, ez dakit zenbat iraungo duen lan honek.

ASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Joxe Guridi

Santamasak euskal giroa suspertzen

Joxe Guridi, Santamas jaietako batzordekoa da, aspaldiko jai hau berpiztea erabaki zutenetik.


— Noiztik dator jai hau?

— Ez dakit ziur, baina orain dela 500 urte uste dut ospatzen zela; beraz, aspaldikoa da. Gero industrializazioarekin baserri-giroa jaitzen hasten da eta jaia desagertu egiten da.

— Zergatik hasi zineten jai hau antolatzen?

— Giro euskalduneko jairik ez zegoenez, duela 15en bat urte pentsatu genuen ondo egongo zela garañ batean ospatzen zen baserri-giroko euskal festa hau berpiztea. Orduan gabonetan aste kulturala antolatzen zen; Udalari dirua eskatzea erabaki genuen, eta Kultur asteko egitarauan herri-erakusketa bat antolatu genuen lau posturekin Sebero Altuben.

— Oraingo eta lehengo Santamasen artean, badago ezberdintasunik?



— Lehen antolatzen zen guztia feriarengatik inguruan antolatzen zen, hau da, feriaz garrantzitsuena, inguruko baserriar guztiak etortzen bait ziren; feriaz gain zegoen ekintza bakarra erromeria zen. Gaur egun, berriz, feria jaietako beste ekintza bat da, egunaren inguruan asteburu osoan jaiak izaten dira.

— Zer da zuentzat jai hau?

— Urte guztian zehar ikusten ez den giro euskalduna ikustea da garrantzitsuena. Horretaz gain, badaude herrian talde batzuk hori berpizten laguntzen dutenak, esate baterako, trikitalariak, dultzaineroak, dantzariak, bertsolariak, txalaparta; eta kanpokoak ekarri beharrean bertakoak bultzatuz euskal giroa sortzea izango litzateke gure helburua.

— Aurtengo egitarauan badago zerbait aipagarririk?

— Santamas-bezperan dantza-lehiaketa izango da aipagarriena, egiten den lehenengo urtea bait da. Potentziatzea nahi duguna jendea baserriarrez jantzita irteeta da, horregatik sartu dugu egitarauan. Aurten ere herri-bazkaria izango dugu. Bestalde, aurten arte zerbait egin duen herriko jendeari ezer gutxi ordaindu zaio eta nahiko genuke kanpoko jendeari ordaintzen zaion beste ordaintzea; horregatik, aurten Udalari dirua eskatu diogu hauei hobeto ordaintzeko.

— Nola lortzen duzue txerria?

— Txerria jaiak baino zerbait lehenago erosten da; beti ahalegintzen gara Donostiako Santamas ferian egon den txerria baino pisu handiagokoa ekartzen, baina hau zaila izaten da, ez hango oso handia delako, handia topatzea nekeza izaten delako baizik.

URTE BERRI ON!

Eskiña taberna

Oiarte, 25 ARRASATE Tfnoa: 79 0220


URTE BERRI ON!

Osorik
pub

Jai hauetan ere
girorik onena.
ZORIONAK!

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate

DUO DISEÑO



- **OBRAK**
- **BARRUAK**
- **BULEGO-ALTZARIAK**
- **PROIEKTUAK**
- **OSAGARRIAK**

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 28 86

Aukera zabala Santamasetan

Abenduak 20, ostirala

- Arratsaldeko 7etan, Monterron Kultur Etxean, AED Elkarteak, Udalaren laguntza antolatutako Jokin Zaitegi V. Itzulpen Labor eta Arrasate 91 Lehiaketen sari-banaketa.

Abenduak 21, larunbata

- 12.30etan, Sebero Altube plazan Arrasateko Bikote-Dantza Askatuko I. Txapelketa (14 urtetik beherakoentzat).
- 5etan, San Juan Bataiatzailea Parrokian Goikobalu Abesbatzaren kontzertua.
- 7etan, Santamasetako txerriaren aurkezpena eta zozketarako txartelen salmenta.
- 7.30etan, herriko kaleetan zehar, Trikitilarien kalejira.
- 11etan, Herriko Plazan dantzaldia *Ingumarekin*.
- 12etan, zezen suzkoa.

Abenduak 22, Igandea

- 9.30etan, diana.
- 10etan, Azokan fruitu, barazki, hegazti eta Euskal Herrian eskuz egindako gazten lehiaketa, erakusketa eta salmenta.
- 10etan, Nafarroa Etorbidetan nekazar makineriaren feria.
- 11etan, Herriko Plazan, artisaui-lanen erakusketa.
- 11etan, kalejira, Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaiz dantza taldeak, dultzainari, txistulari, trikitilari eta koplariekin, Iturengo tuntuurroek eta *Incansables* txarangak lagundurik.
- 12.30etan Herriko Plazan, txalaparta saioa.
- 12.30etan, Zaldibarren, Santamas Aizkolari-Txapelketa. Partaideak: Arrospeide, Mindegia, Larretxea eta Etxebeste.
- 1ean, Zaldibar pilotalekuan



harrijasotzaileak: Arrasateko bolo-harria jasotzen marka haustea.


- 1.30etan, Sebero Altube Plazan, Arrasateko folklore talde guztiak batuta saio berezia.
- 2.30etan, kiroldegian Herri-Bazkaria, txaranga, bertsolari eta trikitilariak alaituta.

Bazkal ostean giro bikaina izango da

- 7.30etan, herriko kaleetan zehar *Incansables* txarangarekin kalejira.
- 11etan Herriko Plazan dantzaldia Anker taldearekin.
- 12etan Herriko Plazan txerriaren-zozketa.

Abenduak 24, asteartea.


- 11etan, Txorontzi Olenzeroren Arrasateko lagunaren irteera. Herrian zehar ibiliko da gutunak jasotzen.
- 6etan, Olenzeroren irteera. Ibilbidea: Ferixalekua, Maala, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloia eta Herriko Plaza.
- 7.30etan Herriko Plazan Olenzeroren agurra. Mutildantza eta herri-dantza dantzatuko dira.




NEBRASKA

kafetegia-taberna

Zarugalde, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 09 39



BADITUZU DAGOENeko 3 DESIO



- Imitaezinezko Proiektua
- Zure neurriko Sukaldea
- Oso prezio interesgarria

ART 8

HIREI

SUKALDE OSOTUAK

OTALORA LIZENTZIATUA Tfnoa. 77 02 82 ARRASATE

Zer nahiago?

Leire Aperribai Arrasate Musikal-ekoa



- **Pianoa ala gitarra elektrikoa?** Pianoa, instrumentu klasikoak gehiago gustatzen zaizkit eta.
- **Almenera ala mendira joan?** Nahiago dut mendira joan, baina asti gutxi izaten dut.
- **Mozart ala Beethoven?** Mozart.
- **Entsaiatu, goizez ala arratsaldez?** Arratsaldez, orduan bait dut denbora.
- **Irati ala Biona?** Iratin jartzen duten musika gehiago gustatzen zait.
- **Irakurri ala abestu?** Biak.
- **Olentzero ala erregeak?** Olentzero, euskaldunona da eta.
- **Kaleko ogia ala baserrikoa?** Baserrikoa, beharbada gutxiagotan jaten dudalako.
- **Do ala Fa?** Do, alteraziorik ez duelako.
- **Panty-ak ala galtzerdiak?** Galtzerdiak beroagoak dira.
- **Oporretan, udalekuetara joan ala gurasoekin norabait?** Udalekuetan hobeto pasatzen dut.
- **Hamarretakoa ala merienda?** Ez bata eta ez bestea.
- **Esne osoa ala desnatatua?** Osoa, bestea ura bezalakoa bait da.
- **Bizitzeko, Garagartza ala Arrasate?** Arrasatek gauza gehiago ditu.
- **Olinpiadetara ala Expo-ra?** Euskal Herriko azokaren batera hobeto.
- **Mullak belarritakoekin ala barik?** Ez zait asko axola, batzuei ondo gelditzen zaizkie eta beste batzuei ez.
- **Santamasak ala San Juanak?** Santamasak jatorragoak dira.
- **Ingelesa ala frantsesa?** Frantsesaren azentua politagoa da.
- **Lo almohadaz ala barik?** Almohadaz.


Bertsotan

Santamasak

1
Santamasa beti izan da gure ohituren egarri, askok ez dugu lehen ta orain non bereizten den igarri. baserriarren jantzi jatorra egun hortarako jarri, ta ahal duenak egun horretan idi pareta ekarri.

2
Santamasetan txarria beti izan dugu hemen modan, Txispas-ek aurten muturdun bila izan du bai nahikoa lan. animalien kopurua be gutxiagotzen nola dan, plastiko hutsezko txarri handi bat erosi dute Araban.

JON IÑAKI IZARZELAIA



TROKO
TROKO
TROKO
TROKO
TROKO

TROKO
J A N T Z I D E N D A

Olarte, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 46 94

TROKO
TROKO
TROKO
TROKO
TROKO



A

rgazkian ikusten ditugunak, Arrasateko lehengo musika-bandakoak dira. Musika-banda honek

ez zuen Arrasateko herrian edo auzoetan bakarrik jotzen, kanpora ere irteten ziren eta horren lekuko argazki hau dugu, 1952. urteko Elorrioko jaietako bait da.

Goian ezkerretik eskumara honako hauek dira: Adolfo Gomez, Jose M^a Guridi, Miguel San Pedro, Antonio Azkarate, Jose Luis Mendieta, Faustino Balanzategi, Francisco Aranbarri, Domingo Agirreurreta eta Jesus Azkarate.

Erdiko ilaran, berriz, honako hauek: Marcelino Sanz, Luis Zubillaga, Jose M^a Oruna, Lorenzo Oruna, Rafael Ortubay, Inazio Olazabal, Javier Lamarain, Jose

Arregi, Vicente Azkarate, Antonio Aranbarri, Jose Luis Abasolo, Manolo Sanz, Eusebio Gomez, Gabriel Mendizabal eta Juan Jose Garmendia.

Beheko ilaran, azkenik, honako hauek: Jose Exposito, Adolfo Gomez, Rafael Eskudero, Justo Munarriz, Evaristo Celemin, Rufino Aranbarri, Lucio (Udaltzaina), Mariano Azkarate, Fermin Aranbarri, Carlos Andres.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA


ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

Zer nahiago?

Unai Iturriotz

Trikitilaria

- Atalataikoa ala trikitixa? Biak.
- Soinua jo, zutik ala eserita? Zutik jotzea erosoagoa da eta ni neu ere airosoago sentitzen naiz.
- Ohera poltsa beroaz ala manta elektrikoaz? Oheratzeko ez dut horien beharrik.
- Bakeroak ala mahonezko prakak? Biak gustatzen zaizkit, baina mahonezkorik ez dut.
- Tapia eta Leturia ala Zabale anaiak? Tapia eta Leturia, gainera trikitixa berria gehiago gustatzen zait.
- Abarkak ala futboleko botak? Abarkak.
- Neskak ile luzeaz ala motzaz? Jatorrak izanez gero, berdin da ilearen tamaina.
- Pasakailean aitarekin ala lagunaekin? Lagunekin gustorago.
- Negu garaiko jaiak ala uda aldekoak? Jaiak izanez gero, berdin da noiz.
- Arrate Irratia ala Euskadi Gaztea? Egin Irratia entzuten dut beti.
- Mortadelo eta Filemon ala Asterix eta Obelix? Asterix eta Obelix.
- Janaria beroa ala epela? Epela.
- Autobusari itxaroan ala auto-stop egin? Egoeraren arabera, behar izanez gero atzamarra atera behar.
- Telefonoz deitu ala eskutitzak idatzi? Telefonoa gauza puntaletarako, eta eskutitzak intimitaterako.
- Soinua jo eguerdiko poteoan ala bazkal ostean? Giro onaz edozein garaitan.
- Ikasi goizez ala gauzez? Gauetan lokartu egiten naizenez, goizez hobeto.
- Txistek kontatu ala entzun? Entzun, kontatzeko txarra naiz eta.
- Lauburua ala gurutzea? Lauburua.



Bertsotan

Olentzero

1
Zerbaiten eske bagatoz denok olentzerokin tratuka, karta polit bat idatzi eta berak ikatzakin truka. Zerrajerako almagazenean enkargauta omen dauka, okertxuenok gure artean izango dugu burruka.

2

Ume guztiak galdetzen dute: «Olentzero hori nor da?» herrian bera lasai ei dabil bueltatu barik basora. gure etxera nondik etorri eginga dute aproba, tximiniatik ez da sartzen ta atez ate joango da.

JON IÑAKI IZARZELAIA



Estetika-Zentru
Especializatua
eta Medikuntza
Prebentiboa

ZORIONAK!


AMAGARA



Ezagutu ezazu zeure
arazo estetikoaren
ZERGATIA gure
DIAGNOSTIKOAREN
bidez

Erdiko kale, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 09 09

Jose Aranzabal



Hi8 Handycam bideoa

Markarik onenak:

SONY
THOMSON
METZ
FAGOR
AEG
BOSCH

Sukalde-altzariak
FAGOR  Iturbe
banatzaile ofiziala

ELEKTROGAILUAK
KAMERAK
BIDEO
HI-FI
TB



AKOBEren garantia eta zerbitzuaz

Jose Aranzabal

Epelde


BIDEO-ERREPORTAIK

Iturriotz, 22 ARRASATE Tfnoa: 79 19 71

• JAI ZORIONTSUAK IZAN •

OPARI-DENDA

APAINKETA



kumu

Zorionak denoi. Ondo pasatu Gabonak eta datorren urte osoa!

Otalora kalea. ARRASATE Tfnoa: 79 75 43



O

orain dela urte batzuk Arrasaten ere ospatzen da Olentzero. Txoronpiok, Olentzeroren lagunak,

abenduaren 24eko goizean, haurrak Olentzerori idazten dizkioten eskutitzak jasotzen ditu. Arratsaldean, berriz, Olentzero, antzinako ohiturari jarraituz, arratsalde batez ikatza egiteari utzi eta menditik jaisten da umeen artean ilusioa banatzeko. Arrasaten Olentzerorena Harrestik

egiten du gaur egun, baina argazkikoa ez da bera, Juan Ramon Berezibar *Txaparro* baizik. Aurten Olentzerok Ferixalekuan hasiko du ibilaldia eta ondoren Maala, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloitik pasatu eta, azkenik, Herriko Plazan bukatuko du.

BEGONIA

Drogeria / Jostailuak / Opariak


Zerkaosteta, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 28 85



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Beharbada gauza gehiegi eskatu diozu Olen-
tzerori eta postal hori berridaztea komeniko litzai-
zuke, benetan dituzunak zein diren esanez. Txanpa-
narekin zepelina harrapatu barik, e!



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Opari polita eskatuko zenion Olen-
tzerori. Prest egon datorrena hartzeko, eskerronez etorriko bait da.
Lagunarena politagoa iruditzen bazaizu ere, ez hase-
retu harenak beste balioko bait du zureak.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Bai jatorra zarea. Zure ondoan dabilenak
makaleko suertea dauka. Konformista alai eta bihotz
zabal egongo zara. Baliteke gabonetan amonaren
etxera edo joan behar izatea eta gertatu motxila.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zenbatgarren urtea ote da baloia eskatzen duzu-
na! Beste zerbaitekin pentsatzen hasi beharko zenu,
ez duzu uste? Ze demontre, oparia zuretzat da eta
hori baldin bada nahi duzuna eskatu beste bat ere.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Egia da aurtengo txokolatetzko turroia iazkoa
baino meheagoa dela, baina ez zaitez horrela jarri,
doble jan eta listo. Aizu, doblea bakarrik, bestela
badakizu tripako minez lehertuko zarea.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Sekulako leloa eman eta gero, lortuko duzu
azkenean hainbeste desio duzun jostailu mekanikoa.
Daukazuaz disfrutatu, normalean lortutakoa alde
batera lagatzeko joera bait daukazu.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Zer pentsatu duzu oporretarako? Lagunekin jo-
las egin ala eskolako lanak egin? Hamabost egunez
eskolako lanak ez egiteagatik ere ez zaizu ezer ger-
tatuko, beraz zoaz jolasera eta bestea hor konpon.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Gogoratu nola jarri zinen iazko gabon-egunean
hartu zenuen betekadagatik. Aurtengoa ondo neur-
tzen baduzu bigarren egunean ere jan ahal izango
duzu. Oparirik garestiena ez da onena.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lagunarteko festaren bat egiteko irrikan egongo
zara. Hartu telefonoa eta deitu hainbeste maite dituz-
un lagun horiei. Maitagarria zara eta pozez zorutzen
egongo zarete denok. Txanpaina gustoko duzu...



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Pozik egongo zara, e? Bai ondo pasatzen duzu-
la gabonetan e? Urte osoa eman duzu iazkoa gogo-
ratzen. A zelako leloa emango duzun gabonetako
bolak direla eta ez direla!



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Dena norberandako nahi izatea kaltegarri izaten
da luzarora. Eskuartera datorkizuna besteekin bana-
tu beharko zenuke. Egizu berdin besteek eskaini-
takoarekin. Gaztetxoa zara zeurekoikerietarako.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zuek zarete beste ongi zatearekin pentsatzen
duzenak. Besteendako eskatu dituzuen opariak di-
ruaz ordaindutakoak ez badira ere, aberasgarri ba-
dira. Uste kabeko opariak etorriko zaizkizue handik
eta hemendik.

Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL


Poliuretano. Bayer

PERFIL THERMIK
Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21
Ordezkaritza: Labegaraieta z/g, Tfnoa: 76 53 69



Santamasak

Igandean, 7etan, saio berezia

Santamas jaiak datozela eta, ATBk saio berezia eskainiko dizue igande arratsaldean, 7etan hasi eta 10ak arte.

Lehenik eta behin Goikobaluk larunbatean emango duen kontzertuaren laburpena izango duzue ikusgai; ondoren, elkarrizketa eta kaleko bideoekin osatutako Magazina; eta azkenik, 9.15etan, ohizko Mondragol saioa burutuko dugu.

Adi: igandean ere zatozte ATBra!

Astlehena

Berriak
8, 8.30 eta 9etan

Mondra Sport
9.15etan

Asteartea

Berriak
8, 8.30 eta
9etan

Oporrak

Abenduaren 25ean, hau da, datorren asteazkenean oporrak hartuko ditugu. Urtarrilaren 2an, osteguna, itzuliko gara. Ordura arte, ondo pasa!!

Begoña Garai

Atsedenaldirako txanda

Orain bi urte inguru ATB martxan jarri zenetik, jo eta ke ibili da Begoña Garai gurekin elkarlanean. Behar ederra egin du albistegietan, aurkezle moduan. Dena den, atsedenaldirako txanda iritsi zaio orain, ondo merezita gainera.

Igandeko saio berezian, Bego bera izango dugu aurkezle, Xabier Letonarekin batera.

A ze lasaitasuna hartuko duen azken zezen hori toreatu eta gero; e Bego?



Telebegi

● Joan den astelehenean debut garrantzitsua izan genuen ATBn, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribealgo kirol-munduaren errepasoa egiten.

Balantzea? Nire ustez oso-oso ona. Denbora luzean ATBn faltan somatu dudan umorea ekarri dute Gerardo eta Mikelek beren saiora.

Zorionak, bikote, eta ongietorri. Zuen lanak emango du zeresanik aurrerantzean.

● Antza denez, urtariletik aurrera Jose Luis Ezkurra ezagunak hartuko du Mondragol saioaren ardura. Garai batean Mondra taldeko presidentea izana eta futbolari buruz asko dakien gizona. Fitxaketa ederra, ez duzue uste?

● Batzuk etorri, beste batzuk joan. Bego Garairi merezitako atsedenaldira hartzeko ordua iritsi zaio; Itxaro Zubillaga, berriz, Euskadi Irratira doa. Bieiere milesker, eta zorte on!

● Umorea aipatu dudanez, adi, mondrauetarrok. Anne Igartebururen eskutik ATBke-tan lehiaketa berria borobiltzen ari gara. Bai, modan dauden lehiaketak azkenean gure etxera ere heldu dira!

Saio horretan, zuek, arrasatearrak izango zarete protagonistak. Zuek eta zuen umore ona. Adi, beraz, laster helduko zaizue jolasean egiteko txanda.

● A-la-bin, a-la-ban... azkenean oporrak!

Abenduaren 25etik urtarrilaren 2ra gure emisioak eten egingo ditugu. 92 sonatuan ikusiko dugu berriro elkar.

Ordura bitartean, ondo pasau, gutxi gastau... eta bueltak amari!!

JON ANDUEZA

CALIBRA

by Opel



BENETAKO INGENIERIA ALEMANA

Zaldi hegalarien muturra, argi elipsoidal iraultzaileak eta spoiler integratuak. 150 zaldi arteko potentzia duten motorrak, katalitzailedunak, 16 balbula, injekzio elektronikoa eta trakzioa aurrekaldean edo lau gurpiletara dutenak. Eta, horretaz gain, honokoak dituen serieko ekipamendua: **ABSa, direkzio**

lagundua, aire egokitua, chech-control-a, irrati-kasette estereoak, lapurreten kontrako alarma, aleaziozko llantak, leihoigotzeko elektrikoak, sarraila zentralizatuak...

Fabrikanteak aholkatutako prezioa (Penintsula eta Baleareetarako). Garraioa, BEZa eta entregatu aurreko gastuak barne.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

Esperientziaz onenak

OPEL 
Kontzesionario ofizialak